

...eta Kitto!

2016-III-11

965 zkia.

Pausorik pauso osasunaren alde



Toribio Etxebarria, 1

EUKI
servicios inmobiliarios

*20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan*



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com

J. Etxeberria, 13
943 700 230



Audifonoak

Probatu doan
Konpromiso barik

etakitto.eus



101 eibartar atzo Donostiako Lilatoian

2016-03-07 1:28 pm

4.000 emakumek egin zitoten aurre domeka goizean Lilatolaren XXVII. edizioak izandako eguraldi kaskarrari. Eurla eta halzea nagusi izan zuen proban 101 eibartar izan ziren parte hartzen eta guztiek osatu zituzten ibilbideak zituen bost kilometroak....

[Gehiago irakurri](#)



Martxa Lilarekin inauguratu dute Berdintasunaren Pasealekua

2016-03-08 1:57 pm

Gaur goizean inauguratu dute surrerantzean Berdintasunaren Pasealekua izango den Amañako pasealeku berria. Udalak eta Eibarko Emakumeen Mahalak Martxoaren Baren Inguruan antolatutako egitarauari jarraituta, pasealekuaren ibilbidea Amañatik...

[Gehiago irakurri](#)



Arraguetan erre den etxea eraistea erabaki dute

2016-03-04 4:00 pm

Eguen goizean Arraguetá kalean su hartu zuen etxea eraistea erabaki dute. Suhitzaileek etxo arratsaldean oraindik beharren jarraitzen zuten eta gauetan kamioietako bat han laga zuten, erretako egur eta bestelakoen artean berriz suak piztuko....



Herriko emakume kirolariak egongo dira bihar "Emakumeak Kirolean" mahainguruan

2016-03-02 11:45 am

Bihar (osteguna) Portalean izango den "Emakumeak Kirolean" mahai-inguruak hasiera emango dio Emakumeen Nazioarteko Egunaren Inguruan antolatu den egitaraua zabalari. Hitzordua arratsaldeko 19:00etan izango da, Portaleako areto....

[Gehiago irakurri](#)

HERRIKO albisteak



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZTI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Delteco Eibar Triatloi Taldearen esker onak

Aurreko larunbatean martxoak 5 Gipuzkoako Duatloi Sprint txapelketa antolatu zuen Delteco Eibar Triatloi Taldeak eibarreko kaleetan zehar, Eibarreko XXV. duatloia. Txapelketa garrantzitsua Gipuzkoa mailan eta eibarreko triatloilarien urteko zereginetan, dena dela, txapelketa antolatzea ezi-

nezkoa izango zen urtero ditugun laguntzailerik gabe. Lerro hauen bitartez bihotz-bihotzez eskertzea nahi diegu beraien laguntza larunbatean eman ziguten guztiei, bereziki bolondresak, babesle guztiak eta Udaltzaingoa.

Delteco Eibar Triatloi Taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LABARI.- Okina. "Eibarko labarixaren seme bat deportista izan zan".

LAFIO.- Mozkorra, atxurra. "Han ebillen, demaseko lafiuakin, purua serrailian sartu eziñik".

LAFIAU.- Mozkortu. "Zapatu guztietan lafiatzen da".

astean esanak

"Europa gerran dago: herrikide musulmanak etsai bihurtu dituelako eta armadak kalea hartu duelako. Eskubideak murriztu dizkigutela kontuan izanda, Europa herritarren aurka gerran dagoela ematen du. Estatu Islamikoak Europari noiz eraso egigo dion beldurpean bizi gara. Mendebaldeko estatuek herrialde musulmanetako diktaduretan parte hartu izan ez balute bezala. Larrialdi egoeran, Frantziak Siria bonbardatu du, Konstituzioa aldatu du eta frantziarren eskubideak murriztu"

(MARIA GONZALEZ, KAZETARIA)

"Emakumeak gizonaren rola hartu du lan merkatuan, baina gizonak ez du bere egin emakumearena zaintzan eta etxeko lanetan. Egia da etxeko eremuan gero eta gutxiago egiten duela emakumeak, baina ez hainbeste gizonak gehiago egiten duelako, etxeko lan batzuk egiteari utzi diogulako baizik. Gure amek eta amonek egiten zituzten etxeko lan batzuk guk ez ditugu egiten, eta beste kasu askotan lan horiek merkantilizatu egiten dira. Hogei urtean etxeko lanen feminizazio indizea jaitsi egin da, baina zaintzarena ez: emakumeak oraindik oso barneratuta dauka-eta zaintza"

(MARINA SAGASTIZABAL, SOZIOLOGOA)

"Xalbadorri txistuak jo genizkion frantses horrek aurrea hartu zigulako bertso txapelketan. Gure txistu buila hor gelditu zen sekulakotz. Sebastian Gonzalez eta Ives Salaverri ezker paretan pilotan jokatzera ekarri genituen gure artera. Komunikabideen aurrean, frantsesez, gaztelerez zein euskaraz hitz egin izan digute. Gure besteok zenbatak hiru hizkuntzetan? Bata zein bestea barreiatuak izan dira. Gurera ez dira moldatzen, lunbalgiak... europarragoak ote dira agian? Ala ez ote gara gu geu ustez baino espainolago baskismo folklorikoz jantzita? Gabatxotzat ditugula uste dut"

(ANTTONMARI ALDEKOA-OTALORA, GEREDIAGA)



ASIER EZENARRO

Biblia Anoetan

Aurreko domekan, etxera itzultzera, emakume bat ikusi nuen banketxe bateko atean etzanda, kartoiez inguratuta. Maizegi ikusten den irudia estatuko hirietan. Pobrezia igo eta igo dihardu. Negu gogorra da familia askorentzat eta kalean bizi direnentzat, eguraldi aldetik negu eztiatsua izan arren. Zapatuan Donostiara joan nintzen, euripean, Anoetako belodromoan sartzeko asmoarekin, ekitaldi politikoa zela-eta. Azkenean inguruan geratu ginen asko. Ekitaldian Arnaldo Otegi hitz egin zuen. Jose Maria Aznarri erantzunez. Presidente-ohiak adierazpenak eginak zituen, "sasi iragarleak" salatuz. Akusazio hori Otegiarentzat zen, noski, eta Elgoibarko politikariak Bibliatik ateratako hitzekin erantzun zion, Lukasen ebangelioan Jesukristok esandakoarekin: "Ni behartsuei ebangelioa jakinaraztera nator, askatasuna presoei eta zapaldui iragartzeko".

Lehen aldiz entzun dira Bibliako hitzak Anoetan horrelako ekitaldi batean. AEB-etan oso ohikoak dira Jainkoaren eta erlijioaren inguruko aipamen publikoak egitea hauteskunde kanpainetan. Espainiako historian ere gertuko kontuak dira nazionalkatolizismoa eta "komunismoarean aurkako gurutzada". Baina Lukasen ebangeliotik entzundakoa beste jainkoren batena zan. Ez Bushena eta ez Aznarrena: zapalduen eta behartsuen jainkoarena baizik. Jon Sobrino teologo jesuitak azpimarratzen duenez, boterearentzat "Nazaretoko Jesus nahaspilaria da. Jainkoak askoz gutxiago kezarazten du".

Orain dabilta berriro Aznarren aldekoak, bankuak, botere ekonomikoak, troikak eta enparauk Espainiako eredu ekonomikoa luzatu nahian, giza hondamena ekarri duen eredu babesten. Zer axola Aznarri, eta bera bezalakoak direnei, langileen eta behartsuen egoera? Zer axola zaie dirutan lasai bizi direnei langileen etorkizuna? Eta gu, eibartarrok? Noiz irtengo dugu kalera? Gure futbol taldeak 1. mailara igotzen duenean kenduta esan nahi dut!

Ekinguneren "Transformers" ekitaldixa

Datorren eguenian "Transformers: enpresarixuen bigarren belaunaldixak" izenburuko ekitaldixa egingo da Arrate Kultur Elkarte, 19:00etatik 22:00ak bittartian, Ekingune alkartiaren eskutik. Asmua famelixaren negoziua zana edo aurretik baten batek martxan ipiñittakua euren esku hartu dabenak euren esperientzia bestieri azaltzia da eta, horretarako preparau daben ekitaldixan parte hartzeko Iker Aginaga (130 urteko historixia dakan Aguitor S.L. enpresakua) eta Aitor Alberdi eta Xabier Izagirre (50 urte erremintta berezixak egitten darioazen Industrias Mail enpresakuak) gonbidatu dittue. Euren azalpenak entzun eta gero, 21:00ak aldera pintxo-potia egingo da parte hartzen dabenak alkar ezagutzeko eta berba egitteko aukeria euki deixen. Parte-hartzia duan da, baiña antolatzailliak hillaren 14a baiña lehen izena emotia eskatzen dabe, ekingune@ekingune.com helbidera idatzitta (gaxaren eremuan "TRANSFORMERS_izen-abizena" ipiñitta) edo 653 709 150/943 208 420 telefono zenbakixetara deittuta.



Xabier Izagirre eta Aitor Alberdi.

asteko
321
datua

enpresa eta 425 lanpostu sortu dira Debabarrenian azken 10 urtietan Debegearen laguntasunarekin eta 5 urte igarota enpreson biziraupen-tasa %82kua da. 2015ian 464 lagunek hartu eben parte garapen agentziak enpresa baxixen sorreria sustatzeko asmuarekin egindako jardueretan.

Naroa Ariznabarretari epaiketia hillaren 18xan

Aurreko eguenetik Martuteneko kartzelan dagan Naroa Ariznabarreta eibartarra eta zapatuan atxilotutako Ainara Ladron eta Aritz Azkona martxuaren 18xan epaitu-

ko dittue. Bixen bittartian hirurak Martuteneko kartzelan egon biharko dira, aurreko astian epaiketara ez agertziagaittik epailliak atxilotzeko agindua emon eta gero. Hiru gaz-

tia 2007xan A-8xan trafikua moztu ebelako epaittuko dittue. Ainara Ladron elgoibartarrak atxilotu aurretik zapatuan Zarauzko musika plazan emondako prentsaurrekuan azaldu ebanez, "2007xan laga eben legez kanpo Segi gazte antolakundia eta, bertako militanten izatia leporatuta, 80 gazte epaitu dittue azken urtietan, gehixenak tortura latzak sufridu eta gero". Gogoratu ebenez Espainiako Auzitegi Nazionalak hórretatik 78 absolbidu egin dittu. Bederatzi urte eta gero euren kontrako auzixa "zentsugabekeri-xa krudeltzat" jo dabe auzipe-tuak. Bestalde, eguenian Naroa Ariznabarreta atxilotu ebela eta, horren kontra protesta egitteko Untzaga inguruan trafikua moztu eben.





Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabalek egindako eskultura be inaugurau eben. **Silbia**

Martxa Lilarekin inauguratu eben Berdintasunaren Pasealekua

Martitzen goizian inauguratu eben aurre-rantzian Berdintasunaren Pasealekua izango dan Amañako pasialeku barrixa. Udalak eta Eibarko Emakumien Mahaixak Martxuaren 8xaren inguruan antolatutako egitarauari jarraituta, pasialekuaren ibilbidia Amañatik Legarrera bittartian bete eban Martxa Lilarekin inauguratu eben kalia. Aurretik, pasialekuaren izena idatzitta dakan plaka agerixan laga eben eta, amaieran, Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabalek egindako eskultura behin-betiko kokalekuan, San Andres egoitza parian aurkeztu eben, artista bixen parte-hartzia izan eban ekitaldixan. Emakumiaren Egunaren harira bazkari-xa eta alkarrataratzia be egin zittuen.



Edozelan be, Martxuaren 8xari lotutako programiak jarraipena eukiko dau datozen egunetan be: gaur arratsaldian "Erraketistak: gure aitzindariak gogoan" erakusketia aurkeztuko dabe Portalean (erakusketa aretuan) eta, horrekin batera, Patricia Espinaren eskutik "Emakumeak plazan" doku-erreportajea eta "Pilota Girls" laburmetraiaren proiektiñua egingo dira, 18:30xetan. Eta 19:00etatik aurrera, Pagatxak eta Defibelek antolatutako zine-forumian "Million dolar baby" pelikulia ikusteko aukeria egongo da (Portaleko areto nagusixan). Bixar, barriz, goizeko 10:00etan Untzagatik Sosola basarrira talde-ibilaldixan abiatuko dira eta, hara ailllegatzian, herri kirolak eta bestelakuak egitteko asmua dke. Egitaraua birbiltzeko, martxuaren 18xan, Nalua talde feministaren eta "11 emakume, 11 bizipen, borroka 1" dokumentalaren aurkezpena eta "Mantazpitik" poesia-musikatu emanaldixa egingo dira Portaleko areto nagusixan, 18:30xetatik aurrera. Eta martxuaren 20ra bittartian, Juan San Martin liburutegixak antolatutako "Itsaspeko bihotzak" areto literarixuan haur literaturaren bittartez genero bardintasunaren gaixa lantzeko ekimena garatuko dabe.

autuan

...ETA KITTO!-REN URTEKO BATZARRA

Datorren asteko eguenerako (martxuaren 17rako) urteko batzar nagusixa deittu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Batzarra alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartian) egingo da, 19.00etan lehenengo deialdixan eta, ordu horretarako bazkidiaren erdixa baiño gitxiago agertzen bada, billeria ordu erdi geruago, 19.30xetan hasiko da, bertarutzen diran bazkide kopurua edozein dala. Batzarrerako gai zerrendia hónetxek osatzen dabe: 2015eko gestiño-balanzia; 2016rako egitasmuak, bazkide kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak; zuzendaritza barrixaren hautaketia eta funtzionamendua; eta piskolabisa.



DENDARIXENDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak dendak modernizatzeko diru-laguntzetarako deialdixa egin dau. Dendak modernizatzeko zein dendetako ekipamenduk egokitzeko laguntzak eskatzeko epia uztaillaren 15era arte egongo da zabalik. Informaziño gehixago eskatzeko 943254083 edo 943206669 telefonuetara deittu (Leire Ojanguren / Aitor Agirre).

Faustina Larreategi Elustondo



“Eskerrik asko gure zaindari eta erreferente izatiarren.
Beti babesten, borrokan eta irriz.
Betirako gure bihotzetan”

MAITE ZAITTUGU
Billobak eta birbillobak




JOKIN DE
LOS TOYOS

kale izena pertsonaiaren izana

Indalecio Sarasqueta "EIBARKO TXIKITO"

1860an Durangon jaio arren, txikitan etorri zen Eibarrera eta bere bizitza ia osoa gurean igaro zuen. "Eibarko Txikito" gaitzizenaz ezagutzen zuten nahiko txikia eta argala zelako. Oso gazte jokatu zuen bere lehen partida, hamasei urterekin, sasoi hartan pilotaririk onenetariko zen Markinako Laba apaizaren kontra. 1877. urtean, palaz, ordura arte modalitate horretan onena zen "Bizimodu"ri irabazi zion. Pala motza zein luzea, erremontea... pilota-jokoaren modalitate gehienak hartu zituen mendean. Bere fama Euskal Herritik kanpora zabaldu zen eta Argentinan Paysandu famatuari irabazi zion, ordura arte inork egin ez zuena. Behin pilota lagata, Buenos Aireseko "Frontón Nacional", Bilboko Euskalduna, Bartzelonako Condal eta Madrilgo Beti Jai frontoietako intendente izan zen. 1900eko apirilaren 1ean hil zen "Olabé" izeneko Eibarren Elgetakalean zeukan etxean, 40 urte zituela.



Dibujo Eskolarekin elkartanean



Amañako igogaillua. Silbia

Igogaillu publikuak, 02:00xak arte

Jendiak hala eskatuta, udalak herrixan daguaz 13 igogaillu publikuak erabiltzeko ordutegia zabaltzea erabagi dau eta aurrerantzean goizaldeko 02:00xak arte egongo da erabiltzeko aukeria. Aurreratu dabenez, jendiak bihar dan moduan erabiltzen dittuela ikusiz gero, datorren urtetik aurrera 24 ordu martxan lagatzeko aukeria aztertuko leukie. Oin arte goizeko 06:30xetatik 23:00etara eguan igogailluak erabiltzeko aukeria, baiña auzorik auzo egitten dittuen billeretan behin eta barriro eskatutakuari erantzuteko asmuarekin eta ordutegi horretatik kanpora be jende nahikua ibiltzen dala ikusi eta gero, ordutegia zabaltzea erabagi dabe. Eskillara mekanikuekin ez dabe holako neurririk hartuko, "zarata haundixagua etartzian auzokidieri trabarik ez egitteko".

Nagusixen Azokarako izen-emotia 17ra arte

Udalaren Garapen ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza sailak azokia antolatzan dihardu, pertsona nagusixendako produktuak eta zerbitzuak dittuen Eibarko dena eta negoziok bere eskintzaren barri emon deixen. Horretarako, karpa bat ipiñiko dabe Untzagan, apirilaren 16xan (zapatuan, egun guztian) eta 17xan (domekan, goizez). Nagusixen Azokan parte hartu nahi dabenak martxuaren 17ra arte emon lekie izena Pegoran. Parte hartzeko baldintzak hónek dira: nagusixendako produktu eta zerbitzuen alorreko jarduerian aritzia, Gizarte Segurantzian alta emonda egotia eta jardueria Eibarren eskintzia. Baldintzak konsultatzeko zein eskaera orrixa jaisteko udalaren web orrixa (eibar.eus helbidera) jo leike.



400 tupper saldu ziran sozialisten baba-jan solidarixuan

Eibarko Sozialistak eskerrak emon nahi detsez oin dala asteburu bi egin zan baba-jan solidarixuarekin bat egin eta babak erositta lagundu eben guztieri. Azaldu dabenez, "oso eguraldi eskasa egin arren ixa 400 tupper saldu genduazen, aurreko urtietan baiño 150 gehixago". Untza-

gan 165 raziño saldu zittuen, Amañan 108, Urkin 74 eta Urkizun 52. Horrekin batera 70 kilo baba eta sakramentuak sukaldatzen eta saltzen ibilli ziran boluntarixueri be eskerrak emon nahi detsez. Aurtengo ekitaldixan batu daben dirua EPE Euskadiko Polio Elkarteari emongo detse.

Kontent eta Ceba tabernak irabazi dabe II. Gilda Lehiaketia

Ostalariak eta Dendariak Berbetan programaren barruan "Euskeraz Primeran" II. Gilda lehiaketia egin zan aurreko asteko eguen eta barixakuan. Iazko moduan, arrakasta haundixa izan dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketa, 24 tabernak hartu dabe parte eta egun bixetan tabernetan gilda desberdiñak dastatzen ibilli dan jende mordua nabarmendu dabe antolatzailliak.

Iaz ez zan erraza izan eta aurten gatxagua izan da epai-mahaixa osatu daben Mireia Alonso, Josu Gimenez eta Josu Mugerzarentzat erabagixa hartzia. Parte-hartzaillie kopuru altua eta batez be aurkeztutako gilden mailla ona azpimarratu dabe hirurak. Azaldu dabenez, "iaztik hona eboluziño nabarmena egon da. Aurkezpena gehixago zaindu dabe, sormen lana haundixagua izan da... Txalotzekua da ostalarixak lehiaketan aurkezteko hartzen daben biharra".

Kontent tabernak preparautakua izan da epai-mahaikidien-dako gildarik onena. Bai aurkezpen, sormen zein zapore irizpidietan notarik altuena emon detse. Herritarren artian, barriz, Urkiko Ceba tabernaren gildak auki dau arrakastarik haundixena. Antolatzailliak 2.000 lagun baiño gehixagoren bozkak jaso dittue eta hórren artian zozketatu daben bi lagunendako afarixa Kantabria jatetxian Ane Arteagari egokittu jako.



Sari irabazliak eta epaimahaikuak. ETBko kamarak be jarraitu eben lehiaketia.



Gure Esku Dago-ren billeria

Martxuaren 16rako (eguztenerako) billeria deittu dabe Gure Esku Dago herri dinamikako kidiak, urte hasieran abiatu eben bazkide kanpaiñari buruzko informaziñua emoteko eta, horrek batera, aurrera begirako asmuak eta ekaiñerako prestatzen dabiltzan ekintza azaltzeko asmuarekin. Herritar guztiendako zabalik egingo dan billeria Arrate Kultur Elkartean izango da, 19:00etan. Informaziño gehixago nahi izanez gero interneten gureeskudago.eus helbidian begiratu leike.

Arraguetan erre zan etxia bota egingo dabe

Aurreko asteko eguen goizian Arragueta kalin erre zan etxia eraistia erabagi eben barixakuan, udaletxian egindako billeran. Suhiltzailliak sua guztiz emetau eta gero, udal arkitektuak suak egindako kaltiak ikusten ibilli ziran eta, azterketia amaituta, 19. zenbakiko bizilaguneri arratsaldian etxera bueltatzeko aukeria emon zetsen, "sua eraikin horretara ez ailegatziñan kalte edo arriskurik ez egualako". Sua piztu zan 21. zenbakiko eraikiñian, barriz, suak goititik behera erre eban dana eta kaltiak

be garrantzitsuak izan ziran, baiña etxia behera jausteko arriskurik ez eguala esan eben adituak. Edozelan be, suak egurrezko eraikiña osorik kiskali eban eta, kaltiak ikusi eta balortu ondoren, erretako eraikiñetik geratzen dana eraisteko erabagixa hartu eben. Botako daben etxian lagun bakarra bizi zan, esku eta hanketan bigarren maillako erredurekin Gurutzetako Ospitalera eruan eben 45 urteko gizona. Adituak sua zelan piztu zan ikertzen dihardue oindiok.

Armerixa Eskolakuak Belgikan



Armerixa Eskolan Diseiñu eta Fabrikaziño Mekanikua irakasten daben Alberto del Hoyo eta Javier Benaito irakasliak Belgikako Haselt hirixan egun batzuk pasatzen dihardue, Sergio Osua eta Adrian Sampayorekin batera, TIHH Haselt ikastetxiarekin daken alkarlanerako topaketan parte hartzen. Hain zuzen be, alkarlan-hitzarmenaren barruan Belgikako ikasle eta irakasle batzuk egunotan Eibar eta inguruan dabiltza eta, bestiak beste, Etxe-tar, Gaindu eta Mutrikuko itsas-energiarako instalaziñuak bisitatu dittue.



URKIKO ARRATEKO ANDRA MARI IKASTETXEAN elkartu gara Houda, Carmen, Montse, Ibone eta Rosarekin. Ikastetxeko ikasleen gurasoak dira eta motibazio eta poztasun handiarekin joaten dira ikastetxean bertan ematen dizkieten euskara klaseetara. Eguenetan, ordu eta erdi inguru egoten dira Elizabeth andereñoarekin, eta esker oneko hitzak besterik ez dituzte Elirentzat eta ikastetxeko guztientzat. Izan ere, mordoak ikasten ari dira eta gero eta gaitasun handiagoa daukate seme-alabekin euskara erabiltzeko eta etxeko lanekin laguntzeko.



Ezkerretik eskumara, Rosa, Houda, Carmen, Montse, Ibone eta Elizabeth andereñoa.

"Gure seme-alabekin euskara egiteko aukera eman digu ikastetxeak"

Guraso batzuk zuzenean ikastetxeko arduradunekin harremanetan jarri ziren euren seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko arazoak zituztelako. Zuzendaritza taldeak eta irakasleek argi zeukaten eskaerari erantzun bat eman behar zitzaioela eta, aukera desberdinak aztertu ondoren, gaia klaustroa eraman zuten. Elizabeth andereñoak bere burua eskaini zuen eta abendutik aurrera, bere lan orduetatik kanpo, gurasoei euskararekin laguntzen die. Taldean 10 lagun inguru daude, gehienak emakumeak, eta beste batzuk parte hartzeko interesa azaldu dute dagoeneko. Haurrak klasean dauden bitartean, gurasoak gorputzaren atalak, orduak, asteko egunak, esaldiak, aditzak eta beste gauza asko euskaraz nola esaten diren ikasten dute.

HOUDA Marokon jaio zen, eta orain dela lau urte Kataluniatik Euskal Herrira etorri zen. "Ni hutsetik hasi naiz, euskera ikasi nahi dut semeei etxeko lanekin laguntzeko eta eskola eta etxearen artean jarraipen bat egotea ezinbestekoa dela uste dudalako. Seme zaharrenak ez zuen ulertzen zergatik hitz egiten zen euskara eskolan eta beste hizkuntza bat etxean, eta honek asko pentsarazi zidan. Euskara oso garrantzitsua da eta denok elkarrekin lan egitea nahi dut. Etxean euskaraz lehenengo hitzak esaten hasi nintzenez nire semeak zoriontsu ikusi nituen, umeak seguroago, alaiago sentitzen dira. Nik ez nekien ezer eta hasieran zaila egin zait, etxea post-it edo paperez bete dut: edan, mahaia, sukaldea, esnatu, altxatu, lo egin, hortzak garbitu... eta modu horretan hitzak memorizatzen joan naiz".

CARMENek, guztien izenean, Elixabette irakasleari eskerrak eman nahi dizkio "gurekin egiten ari den lanagatik eta gurekin daukan pazientziagatik. Bolondres lana egiten du, bere denbora librean etxera joan beharrean gurekin egoten da, ezin da diruarekin ordaindu egiten ari dena". Carmenek, Euskal Herrian jaio arren, ez du izan euskara ikasteko aukerarik. "Ni Patxiren garraioa naiz eta gurasoak erdaldunak ditut. Zortzigarren mailara arte ez nintzen hasi eskolan euskara ikasten. Orain lotsa galtzen ari naiz, indioak bezala hitz egiten dut baina pila bat soltatu naiz. Erresidentzian lan egiten dut eta hango nagusiekin euskara egitera animatzen ari naiz".

MONTSEk azaldu digunez, "nik euskara apurtxo bat badakit, txikitik ikasi nuen, baina gero etxean ez dut izan berba egiteko aukerarik. Dena edo ia dena ulertzen dut, baina berba egitea beste kontu bat da. Seme-alabekin batera goaz: Elik galdetu egiten digu haurrak zer ematen ari diren eta klaseak horren arabera antolatzen ditu. Gainera oso metodologia ona erabiltzen du, esate baterako kantuen bidez gauza asko ikasten ari gara. Hasieran nire semeak ez zuen nahi nik euskara egitea baina orain ikusten duenean ni ere eskolara natorrela eta gainera etxeko lanak ere izaten ditudala barre egiten du eta bere jarrera guztiz aldatu da.

Karta etxera iritsi zitzaionean, **IBONE**ri oso ideia interesgarria eta aukera paregabea iruditu zitzaion. "Nik 3 urteko alaba daukat eta gogoa daukat euskara berreskuratzeko eta berarekin euskaraz jarduteko. Nire garaian euskara oso gainetik ikasten genuen, as-

tean bi ordu besterik ez. Hitz egitea da lotsa kentzeko modu bakarra. Orain alaba txikia da baina urte batzuk barru laguntza eskatzen didanerako prest egotea nahi dut. Klase hauen bitartez egiten duguna, azken finean, hitz egitera animatu eta buruan gordeta daukaguna ateratzea da".

ROSAren gurasoak ere kanpokoak dira, Andaluziakoak. "Euskaltegian ibilitakoa naiz eta maila altua lortu nuen. Ni beti lanean egon naiz eta ez dut euskara ikasteko beharra sentitu. Baina alabekin bai igarri dut behar hori. Alaba txikiari laguntzea gustatzen zait eta haurrek asko estimatzen dute guk egiten dugun ahalegina, harreman berezi bat sortzen da. Gure asmoa ez da EGA ateratzea, guk nahi duguna defendatzea da, ipuin bat ulertu, telebista umearekin ikusi eta dena ulertu, etxeko lanetan lagundu... Guk taberna daukagu eta han ere gero eta gehiago erabiltzen dut. Oso gustora gaude taldean eta fruituak ikusten ari gara".

ELIZABETH LEMA irakaslea egunero etortzen da Zestoatik 3. eta 5. mailakoei klaseak ematera. Eta bere lana amaitzen duenean guraso taldearekin gelditzen da: "Nire asmoa da eurei laguntzea eguneroko bizitzan umeekin manejatzeko. Etxean behar dutena kontuan hartzen dut eta etxeko lanak ere bidaltzen dizkiet, eurek horrela nahi dutelako. Giroa oso ona da eta ikasteko gogo handia daukate. Gogoz hartu nuen eta orain gogo handiagoarekin nago, oso motibatuta ikusten ditut. Maila desberdinak daude eta kalseak moldatu egin behar dira guztiek zerbait eramateko etxera, eta uste dut lortzen ari garela".

Edu Zabala Garagartzak (Eibar, 1958), "Inauteria, gizakia naturaren kontra", inauteriei buruzko saiakera argitaratu berri du, autoedizioz, mundu osoko inauteriak ardatz hartuta. Aurretik hainbat lan ditu argitaratuta: "Inauterietan" izeneko ipuin bilduma eta "Ezka" eleberria 2004an, "Onddoak, ondo?" eleberri umoretsua 2005ean eta euskal mitologiaren gaineko "Aiako" eleberria eta "Zaude" olerki liburua 2008an.

EDU ZABALA (idazlea):

"Noizbait Eibarri buruzko eleberria idatziko dut"

- Donostian bizi bazara ere, jaiotzez eibartarra zara. Baduzu harremanik Eibarrekin?

Ikasketa unibertsitarioak egitera Sevillara joan nintzen, 1976an, hori izan zen nire lehen aldentzea; gerora, Lehen Hezkuntzan irakasle bezala bi ikasturte eman ondoren, Eibarko Itzian eta Elgetan, 1983an Irunera joan nintzen Lanbide Heziketa institutu batera, eta harrezkero Eibartik kanpo bizi izan naiz. Badut harremana Eibarrekin eta nire koadrilarekin; urtean behin San Andresetan bazkaria egiten dugu, eta hortik kanpo ere egoten gara elkarrekin; ez dut galdu harremana, are gehiago esango nuke, gure koadrilan, nahiz eta gehienak Eibartik kanpo bizi, ahalegin berezia egiten dugu elkarrekin egoteko. Ama ere Eibarren bizi dut, eta horretaz gain, esan beharra daukat badudala zirriborratua eleberri bat, Eibarri buruz, armagintza ardatz, noizbait idatziko dudana.

- Zazpi urteko isilunea eta gero "Inauterietan, gizakia naturaren kontra" liburua kaleratu duzu. Zein da liburuaren mamia?

Liburuan saiatzen naiz argudiatzen, inauterietan, Naturarekiko dugun uestezko nagusigoa antzeztzen dugula. Hasiera batean kaosa zen nagusi, naturaren indarra sekulakoa baitzen eta gizakiak burua makurtzea besterik ez zuen Naturaren legeen aurrean; gero, poliki-poliki eboluzionatzen joan gara eta Naturari zor diogun errespetua galtzen joan gara, hainbestearino non sinisten dugun gu garelako nagusi eta ustiaketa horrek ez duela ondoriorik izango. Liburua bost ataletan banatu dut: Kaosa mitologian, kaosa eta beldurra, kaosaren antolakuntza, inauteriak eta bukatzeko, borrokak dirau deitzen dudana

- Beraz, liburua inauteria kaosarekin lotzen duen saiakera bat da...

Bai, lehen esan bezala, iraganean, orain eta beti hiru kaos mota izan dira: naturarena, piztia eta gizakiarena; gure arbasoek ez zekiten azaltzen gertatzen ziren fenomeno


guzti horiek (lurrikara, uholde, tximista, ekaitz, izurrite, gaisotasun, etab. luze bat) eta hori guztia ordenatu behar zuten bere osasun mentala mantentzeko eta beraien munduari nolabaiteko azalpena emateko; orduan, kultura guztietan, mitoak sortu zituzten: Ortzi izango zen tximisten egilea, Mari bere suzko gurdiarekin, gaur egun ezagutzen dugun kometa, Mikelats ekaitzen sortzaile eta beste hainbeste. Mito horiek ordenatu ondoren, betekizunak eta izaera emanez, horietariko batzuk Inauterietara ekarri eta antzeppen bat antolatuta zuten. Horra hor lotura.

- Nolako berezitasunak dituzte Euskal Herriko inauteriek munduko beste batzuekin alderatzen baditugu?

Nire proposamen honetan Bulgariako Kucker inauteriaren zertzelada batzuk agertzen dira eta ikusten da antzekotasun handia dutela gure joaldunekin, bai funtzioetan, bai itxuran. Konparatzen ditut baita ere Zuberoako maskaradetako dantzarien jauziak Afrikako masai tribuaren dantzariekin, haiek ere jauzi egiten baitute, euria erakartzeko. Bi aipamen horietaz gain eta mitoei lotuta, gauza jakina da mitoak unibertsalak direla, tokian tokiko bereizgarriekin, baina denek antzeko funtzioak betetzen dituzte, hots, fenomenoen, kaosaren azalpen ordenatua eta mailakatuak. Nik lau nekazal inauteri hartu ditut: Ituren eta Zubietako joaldunak, Lantz, Altsasuko momotxorroak eta Zuberoako maskaradak. Luze joko luke horien azalpenak, baina oso inauteri aberatsak dira, bai estetikoki bai barnean daramaten karga simbolikoagatik.

- Autoedizioaren bitartez kaleratu duzu zure azken liburua. Honek zer esan nahi du? Nolako zailtasunak dituzue idazleek gaur egun zeuen lanak argitaratzeko?

Autoedizioa jarrera pertsonala izan da, nire sormenaren eta sortutako produktuaren inguruko jarrera. Orain arte argitaratu DIDA-TEN liburuetan prozesua zen: liburua atera, aurkezpen BAT egin, eta hortik aurrera ba,



nolabait esatearren, itxoin ea nola zihoan; agian eskema horretan ere posible nuen askoz gehiago egitea liburua nik neronek promozionatzeko, baina utzikieran erortzea errazago da. Horretaz gain, nahiz eta Euskal Herriari literaturatik bizitzea pentsaezina den ni bezalako idazle xume batentzat, argitaletxea %90rekin geratzen zen; autoedizioa, ordea, zuk kontrolatzen duzun prozesua da eta parafernalia editorial horretatik ihes egiteko aukera ematen dizu; gainera, zure ume kuttuna denez, zu zeu mugitzen hasten zara kontaktuen eta lagunen bidez eta hori esango nuke izan dela niretzat, liburu honekin, esperientziarik politena, hau da, hitzaldiak ematearena, jendea ezagutzearena, toki berriak aurkitzearena eta komunikazio pertsonala garatzearena; benetan merezi du.

- DBHko irakaslea zara, beraz harreman zuzena daukazu gazteekin. Badute irakurtzeko zaletasuna?

Irakurtzeko zaletasuna ez nire garaian ezta orain ere; nik uste dut hor, hezkuntzak asko findu behar duela zer liburu mota eskaini eta zer teknikak eman ludikoa izan dadin, eta ez azterketarako gaia bakarrik. Baina irakurtzeko zaletasuna komikien bidez ere garatu daiteke, adibidez, baina ez da literatura kontsideratzen; oso puristak gara.

Teknologia berriek arlo guztietan dute eragina: mezuak, sare sozialetan adibidez, oso motzak, azalekoak dira, itxurakeria intelektualaren gizartean bizi gara, "postureo" mentalean, alegia. Dena izan behar da azkarra, bisuala, motza, stressantea azken batean.

Gero eta sarrixago entzuten dogu zelako mesedegarrixa dan egunero pasiatzeko ohitturia izatia. Bardin detsa andra ala gizona, gazte ala heldu izan, medikuak egitten dittuen azterketak agerixan lagatzen dabe gure bizimoduak sedentarismotik gero eta gertuago egotera bultzatzen gaittuala nahittaez. Eta horrek ez detsa gure osasunari bape mesederik egitten. Horregaittik gero eta herri gehixagotan hasi dira edozeiñek egitteko moduko ibilbidiak preparatzen eta gurian be laster holako hiru ibilbide eukiko doguz aukeran.

Beste herri batzuetako adibidiari jarraituta, Eibarko udala herri-barruko ibilbide zirkuito osasungarixen sarea abiatzeko lehelengo pausuk emoten hasitta dago. Horrelako kontuetan esateko zezozer daken gizarte-eragilliekin Debegeesak korrocinatu dittuan hainbat billera egin eta gero, zirkuitorik aproposenak zeintzuk izan leikiazan, oiñezkuak ahalik eta moduren erosoenian erabili ahal izateko egin biharreko konponketak zeintzuk diran eta beste kontu batzuk idatziz jaso dittue eta horrekin proiektua preparau dabe. Arduradunak azaldu dabenez, *"hor jasotakuari jarraituta, hiri inguruko zein hiri barruko ibilbidiak diseinatuko dira, herritarreri neurrizko jarduera fisikua eguneroko bizimoduan txertatzeko gonbidapena egitteko asmuarekin. Horrekin, pertsona sedentarixuen, batez be edade batetik aurrerakuen ongizate fisiko eta mentala hobetzia billatzen dogu"*.



Gehixenak dakagun bzimodua dala-eta, komenigarrixia da egunero ibiltzia.

Osasunaren aldeko bidian aldaparik ez



Lehelengo fase batian zirkuituak zihetzeko biharrian ibilli dira: *"Mahai teknikuak, gizarte-mahaixak eta landa-lanak, hórretxek osatutako hiru lerrueri jarraituta jardun dogu biharrian. Mahai teknikuak hainbat arlotako eragilliak hartu dabe parte: ingurumen, kirol zein osasun publikuan*

diharduen teknikuak, Hirigintza, Obrak eta Gizartekintza sailletako udal teknikuak, udaltzaiñak, Debegeesak, Esperientzia Eskolakuak...". Gizarte-mahaixan, barriz, *"adiñeko pertsonen eta Andretxeako ordezkariak ibilli dira parte hartzen, bestiak beste"*. Eta landa-lana deitzen daben horretan ingurunia bera aztertzen ibilli dira: *"Orografia, espazio publikuen eta ekipamenduen sarea, mugigarritasun-sarea, oztopuak..."*.

Hórretxek danak kontuan hartuta, zelako ibilbidiak prestatu leikiazan ikusteko biharri ekin zetsen jarraixan: *"Gaiñera, ibiltarixen ohitturak aztertu eta euren ekarpenak jaso genduazan. Proposamena herritar guztiei zuzendutakua da. Zirkuituak zailtasunaren arabera sailkatzeko eskema bateri jarraitu detsagu eta, holan, bako txaren egoera fisikuaren arabera, ibiltari bako txak berari onduen egokitzen dan ibilbidia aukeratu ahal izango dau"*.



gero eta zahar gehixago

- Europa osuan nagusi dan joeriarri jarraituta, Eibarren be gero eta zahar gehixago egongo dira. Gaur egunian **Eibarko lau biztanletik bat zaharra da.**
- 50 urtetik gorakuen artian, gehixenak diñue egunero egitteko moduko **kirol-jarduera gustokuena aire zabalian ibiltzia** edo pasiatzia dala, bardin detse bakarrik edo lagunekin batera juatia.
- Kasu gehixenetan, gaiñera, **medikuak holan agindu detselako** hasi dira egunero pasiatzen. Bestela, hortik kanpora, aurreko hillebetian kirolarekin lotutako jarduerarik egin ez dabela diñue andrazkuen %70k eta gizonezkuen %43k.

Hiru ibilbidiak edozeiñek egitteko modukuak izango dira, luzeera eta zailtasun mailla diferentiek. Bakotxa nundik nora doian jakittek seiñaliak ipiñiko ditue.



Hirurak anbulatorixotik abiatuta

Preparau dittuen hiru ibilbidiak anbulatorixotik ingurutik, Toribio Etxebarria eta San Juan kalien arteko bidegurutzetik abiatuko dira eta, hortik aurrera, zailtasun mailla ezberdiña eukiko daben hiru zirkuitu biribil aurreikusitue. San Juan-Amaña bittartekua zirkuitu "erraz" modura sailkatu dabe, San Juan-Azittain bittartekua "zailtasun ertaineko" modura eta zirkuitu "zailla" San Juan-Ipurua-Unbe-Txonta ibilbidiak osatuko leuke. Hirurak preparatzen ibilli diranak esplikau deskuenez, "zirkuitu errazak zein ertainak, bixak ixa lau kilometroko luzeeria dake eta hirugarrena, barriz, luziagua izango da. Edozelan be, hirurak adituak gomendatzen dittuen tartietan sartuko dira, jendiak hiruretako edozein betetzeko ordu erdi eta ordubete bittarteko denporia biharko dau eta".

Jendiak erabiltzia helburu

Aurten, urtiaren lehen sei hillekuaren ba-

rruan ekingo detse proiektuaren bigarren faseari, hau da, zirkuituak seiñalezatzeari. Bestiak beste balizak eta informaziño-panelak ipintzeko asmua dake. Eta hirugarren fase batian, jende artian ibilbidiak ezagutzera emoteko asmuarekin, dinamizaziño-lana egingo dabe: "Triptiko, kartel eta hitzaldixen bidez jendiak zirkuitu osasungarriak erabiltzia sustatuko dogu".

Ekimenarekin musutruk egitteko moduko kirol-proposamena eskintzia billatzen dabela diñue: "Bakotxak nahixago daben ordutegixan, bakotxaren premiñeri egokitzeko moduan eta, nahi izanez gero, modu erregularrian taldekako pasiuak antolatze-ko aukeria emoten daben ibilbidiak dira. Zirkuitu osasungarriaren sarea osatuta eta herrixa ziherkatzen daben ibilbidiak oiñarri modura hartuta, inguratzen gaituan naturarekin lotura haundixagua eta jendiak kirola egittia, gauza bixak lortu leikiatzela pentsatzen dogu".

Oin arte paperian jasotakua erralidade

billakatzeko arduria Mendaron daguan Projecta enpresia eukiko dau, aurretik holako beste proiektu batzuk garatu dittuan ez arlo horretan aditua da eta. Urrutira begira ipiñi barik be, Ermuko udalarekin alkarlanian sedentariñuari aurre egitteko Hiribili proiektua diseñatu eben, herri barruan oiñez ibiltzeko proposamena Ermua Mugil! izeneko estrategia komunitariñuaren baitan txertatuta.

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



JOSTEKO TAILERRAK
 ADIN GUZTIENTZAT
ALFA_n

OIHANA
 637440539



Danel Agirre, Maier Fernandez, Markel Artetxe:

«Alemaniako bizitza maila gurea baino askoz altuagoa da»

Otsailaren 27an abiatu ziren Ignazio Zuloaga institutuko 30 bat ikasle Alemania aldera, urteroko martxan Baling hiriko Gymnasium ikastetxeko ikasle alemaniarrekin elkartrukean. Han ia astebete ederto eman eta gero, eta zapatuan Alemanian ezagutu dituzten lagun berriak noiz ailegatuko zain dauden bitartean, euren esperientziaren berri digute Danel Agirre, Maier Fernandez eta Markel Artetxe gazteek.



- Zer moduz ibili zarete Alemanian?

Oso ondo, ia astebete igaro dugu Baling-en, hango Gymnasium-eko ikasleen etxeetan. Eibartik arratsaldeko 19:00etan irten eta hara hurrengo egunean, 11:30ak aldera ailegatu ginen. Hango ikasle, irakasle eta familiek harrera egin ziguten eta, jarraian, bakoitzari egokitu zitzaigun etxera joan ginen, han bazkaldu eta elkar ezagutzeko. Arratsaldean, berriz, denak elkarrekin izotz-pistara joan ginen, patinatzerara.

- Eta astebarruan, alemaniarrek klasera joaten zirenean zer egiten zenuten?

Eurak klasean zeuden bitartean guk tokiak ezagutzeko irteerak egiteko aprobetxatzen genuen eta arratsaldean, eurak klaseak amaitzean, elkarrekin beste ekintza batzuk egiten genituen.

- Zer moduz ibili zarete hizkuntzarekin?

Pentsatzen genuena baino hobeto, euretako gehienak gaztelera ikasten ari dira eta bestela ere inge-

leseaz elkar ulertzeko arazorik ez genuen izan.

- Euren eta zuen artean alde haundirik ikusi duzue?

Gurekin alderatuz gero, euren bizitza maila gurea baino askoz altuagoa da: etxeak askoz handiagoak dira, txalet itxurakoak, automobilak askoz hobeak eta berriagoak... Institutua bera gure baino askoz ere handiagoa da eta, gainera, punta-puntako teknologia darabilte. Eta ikasle eta irakasleen arteko harremanak ez dauka zerikusirik gurearekin, tratuan-eta oso zorrotzak dira. Bestalde, gure adinekoak edo urtebete nagusiagoak izan arren, eurentako askok ikasteaz gain lan ere egiten dute, euren gastuetarako dirua lortzeko. Eta familia gehienetan gurasoak bananduta daude eta, gainera, askok bakarrik gurasoetako batekin zuten harremana, bestearekin trataturik ez zuenik ere bazegoen.


- Orain euren txanda da, noiz ailegatuko dira?

Bihar eguerdi aldera ailegatuko dira Eibarrera. Institutuan egingo diegu harrera, horretarako prestatu dugun ekitaldian: luntxa emango diegu eta, horrez gain, aurrerakua dantzatu eta trikitilariak saioa eskainiko diete, gure ohiturak pixka bat ezagutzen joateko. Datoren astean, berriz, gu klasean gauden bitartean Donostia, Bilbo, Lekeitio, Gernika, Iruñea eta beste toki batzuk ezagutzera joango dira eta arratsalde-gauean gurekin batera ibiliko dira, taberna eta bestelako tokietan normalean egiten ditugun gauzak egiten.



Txaltxa Zelai, txosnetarako tokirik aproposena

Jaixak Herrixak Herrixandakok orain dela aste batzuk ekin zien San Juan jaiak prestatzeko asteroko bilerei (barixakuero 19:00etan biltzen dira Kultun). Aurten jaietarako egitaraua prestatzeaz gain beste kezka bat daukate, gainera: "Azken 4 urteetan, Eibarko txosnagunea Errebalen, aparkalekuan kokatu izan dugu, baina aurten, bertan hasi dituzten lanak direla eta, gure jarduerak han egitea ezinezkoa izango da. Horregatik, orain dela aste batzuk biltzen hasi ginen kokapen berri bat eztabaidatzeko eta proposamen bat egiteko asmoz. Izan ere, Jaixak Herrixak Herrixandakok urte asko daramatza herriko jai ezberdinak antolatzen (San Juanak, Arrateak, San Andresak...) eta, urte hauetako esperientzia kontuan hartuz gero, jaietako egitaraua aurrera eramanez ahal izateko gune duin bat izatea guztiz garrantzitsua dela iruditzen zaigu".



TXOSNAGUNEA TXALTXA-ZELALEN

e 1/300 (A3)

Horrekin batera, orain arteko bideari jarraituta, elkarlanerako tartea izatearen premia argi ikusten dute: "Urte hauetan zehar eragile zein talde desberdinekin burututako lana ezin dugu alde batera utzi. Izan ere, ibilbide luze honetan bidelagunak izan gara eta izaten jarraituko dugu jai parekide, parte-hartzaile, euskaldun eta herrikoiak ospatzen jarraitzeko". Txosnak ipintzeko gune berriaren bila ibili eta gero, bileretara joandakoen artean adostutako proposamena daukate: "Eibarren dagoen espazio falta kontutan hartuta, gure egitaraua aurrera eramateko baldintza guztiak betetzen dituen gunea Txaltxa Zelai dela pentsatzen dugu. Horregatik, gure proposamena, plano eta guzti, udalari helarazi diegu, hori aztertu eta erantzunen bat eman dezan, horren zain gaude, momentuz".

AUZOLANDEGIAK programarako logotipo bila



Auzolandegiak programako kamisetarako logotipo lehiaketa dago martxan. Lehiaketara aurkezten diren logoak bi edo hiru kolore izan beharko dituzte eta diseinuak programarekin bat datozen helburuak bildu beharko ditu. Lanak aurkezteko epea apirilaren 11a bitartean egongo da zabalik eta parte-hartzaileek hiru dokumentu bidali beharko dituzte: logotipoa (2 edo gehienez

3 koloretakoa), JPG formatuan eta bereizmen altuan (300ppp) gordeta; logotipoa www.gazteakera.euskadi.eus helbideetik jaitsi daitekeen kamisetaren irudian txertatuta; eta helbide horretan aurkituko duzuen izen-emate orria, eskatzen diren datuekin beteta. Irabazleak Hego Amerikako herrialde batera joan-etorria hegazkinez egiteko txartela irabaziko du.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu
eta kitto' aldezkarion duzu aukera (943 20 67 76)

DESCUBRE-TÉ
 Teak, kafeak, txokolatateak, eztiak... eta baxera bereziak!!

Probaleku, 4 - Bis (ERMUA) 943 03 15 81
descubreteneu@hotmail.es www.teteriadescubre-te.com

EIBARKO ALKATEAK

XV. mendea

Juan Ibañez Asola (1409)
Sancho Sanchez Ibarra (1492)
Juan Orbea (1493)
Johan Ibañez Orbea (1494)
Juan Cruz Ibarra (1498)

XVI. mendea

Martin Mitez. Azaldeggi (1500)
Pedro Lopez Arexita (1558)
Juan Arrizabalaga (1558)
Cristobal Sugadi (1584)
Juan Sumendiaga (1596)
Antonio Albizuri (1597)
Francisco Ibarra (1598)

XVII. mendea

Miguel Iturrao (1600)
Joan Inarra (1601)
Martin Egiguren (1602-03)
Martin Ruiz Egiguren (1603)
Juan Bautista Lixalde (1603)
Francisco Ibarra (1604)
Pedro G^a Larriategi (1605)
Martin Ruiz Egiguren (1606)
Juan Inarra (1607)
Esteban Ibarra (1608)
Juan Isasi (1609)
Cristobal Sugadi (1610)
Joan Inarra (1611)
Domingo Otaola (1612)
Francisco Lixalde (1613)
Joan Isasi (1614)
Asensio Egiguren (1615)
Pedro G^a Larriategi (1616)
Sebastian Lopez Mallea (1617)
Francisco Lixalde (1618)
Pedro Orbea (1619)
Matias Zelaia (1620)
Pedro Loliola (1621)
Antonio Isasi (1622)
Pedro G^a Larriategi (1623)
Sebastian Lopez Mallea (1623)
Juan Bautista Orbea (1624)
Pedro Loliola (1625)
Juan Lopez Iñarra (1626)
Luis Lixalde (1627)
Cristobal Perez Ibarra (1628)
Miguel Orbea (1629)
Sebastian Lopez Mallea (1630)
Juan Lopez Inarra (1631)
Luis Lixalde (1632)
Juan Bautista Orbea (1633)
Martin Isasi (1634)
Martin Idiakez (1635)
Francisco Egiguren (1636)
Sebastian Ibarra (1637)
Martin Gisasola (1638)
Francisco Unzeta (1639)
Domingo Lopez Ibarra (1640)
Miguel Arizmendi (1641)
Licenciado Ibarra (1642)
Gregorio Ondrabide (1642-43)
Gabriel de Mallea (1643)
Juan Bautista Arando (1644)
Juan Antonio Isasi (1645)
Miguel Arizmendi (1646)
Licenciado Ibarra (1647)
Antonio Ibarra (1648)
Francisco Ibarzabal (1649)
Pedro Unzueta (1650)
Juan Antonio Isasi (1651)
Damian Manzisidor (1652)
Antonio Unzeta (1653)
Cristobal Perez Ibarra (1653)
Bartolome Unzeta (1654)
Miguel Arizmendi (1655)
Diego Ibarra (1656)
Joan Antonio Isasi (1657)
Licenciado Ibarra (1658)
Sebastian Jauregi (1659)
Miguel Arizmendi (1660)
Juan Antonio Isasi (1661)
Juan Ansola (1662)
Bartolome Unzeta (1663)
Sebastian Jauregi (1664)

Antonio Ibarra (1665)
Juan Antonio Isasi (1666)
Cristobal Perez (1667)
Sebastian Jauregi (1668)
Baltasar Egiguren (1668)
Damian Manzisidor (1669)
Francisco Orbea (1669)
Damian Manzisidor (1670)
Sebastian Unzueta (1671)
Miguel Arizmendi (1672)
Juan Bautista Albizuri (1673)
Jose Lucas Lizalde (1674)
Damian Manzisidor (1675)
Juan Antonio Arizmendi (1676)
Sebastian Unzeta (1677)
Ignacio Unzeta (1678)
Baltasar Egiguren (1679)
Juan Antonio Arizmendi (1680)
Juan Antonio Isasi (1681)
Jose Lucas Lizalde (1682)
Juan Francisco Jauregi (1683)
Juan Antonio Arizmendi (1684)
Sebastian Unzeta (1685)
Jose Lucas Lizalde (1686)
Juan Francisco Unzeta (1687)
Damian Manzisidor (1688)
Sebastian Unzeta (1689)
Jose Lucas Lizalde (1690)
Iñigo Velez de Guevara (1691)
Francisco Jauregi (1692)
Juan Antonio Arizmendi (1693)
Juan Bautista Ibarzabal (1694)
Andres Guenetxea (1695)
Francisco Jauregi (1696)
Juan Antonio Arizmendi (1697)
Francisco Rezabal (1698)
Martin Lopez Iñarra (1699)

XVIII. mendea


Francisco Unzueta (1700)
Gabriel Bergara (1701)
Fco. Ignacio Egiguren (1702)
Juan Albistur (1703)
Martin Lopez Ibarra (1704)
Juan Fco. Unzeta (1705)
Fco. Ignacio Egiguren (1706)
Jose Ibarra (1707)
Francisco Areta (1708)
Juan Fco. Unzeta (1709)
Andres Lezeta (1710)
Fernando Lopez Ibarra (1711)
Juan Lezeta (1712)
Juan Fco. Unzeta (1713)
Martin Unzeta (1714)
Andres Guenetxea (1715)
Fco. Ignacio Egiguren (1716)
Pedro Fco. Isasi (1717)
Salvador Ibarra (1718)
Martin Orbea (1719)
Fco. Ignacio Egiguren (1720)
Francisco Unzeta (1721)
Jose Zabala (1722)
Bartolome Unzeta (1723)
Pedro Fco. Isasi (1724)
Fco. Ignacio Egiguren (1725)
Fco. Antonio Salinas (1726)
Francisco Unzeta (1727)
Jose Zabala (1728)
Andres Aldazabal (1729)
Martin Orbea (1730)
Domingo Areta (1731)
Fco. Ignacio Egiguren (1732)
Pedro Laskurain (1733)
Fco. Antonio Salinas (1734)
Sebastian Erbiti (1735)
Martin Orbea (1736)
Jose Zabala (1737)
Francisco Azurza (1738)
Diego Iriondo (1739)
Andres Mandiola (1740)
Pedro Antonio Unzeta (1741)
Hilario Mendizabal (1741)
Andres Lezeta (1742)
Francisco Agirre (1743)
Diego Iriondo (1744)
Pedro Laskurain (1745)
Diego Orbea (1746)
Pedro Antonio Unzueta (1746)
Andres Espilla (1747)



Eibarko alkate guztiak

Alkate asko izan ditu gure herrixak sortu zanetik, XV. mendian sartu arte kargu hori ixa urtero barritzen zala! Eibarko Artxibuan agerti dan lehena kargu horretan **Juan Ibañez Asola** da, 1409 urtian, ondoren ixa XV. mendia amaittu arte datu gehixagorik ez aurkitzeko. XVI. mendian antzerakua gertatzen da, baiña hortik aurrera (1596tik hain zuzen) alkate guztien izenak da-

goz herriko Udal Artxiboko idazkixetan. Lehelengo sasoiatik hasitta, eta urte eta mende askuan, alkateia aukeratzeko modu berezixa izan zan: herri barruko hiru kalek eta kanpoko hiru baillararak barruti elektoral moduan jokatzen eben. Euren arteko "ezinikusiak-edo" saihesteko, baillaretako (Soraen, Akondia eta Arexita) ordezkarixak kalietakuak (Somera, Elgetakale eta Barrenkale) aukeratzzen zittuzen eta hurrengo urtian alderan-





Antonio Iturriozen entierria. Bera alkate errepublikarra zala sartu zan Eibar XX. mendian. Eibarko Udal Artxiboa

tz. Kanpokuak barruko zein izango zan alkati erabagitzen eben, eta barrukuak gauza bera kanpokuakin. Aukeratutakuen artian zein izango zan alkate erabagitzeko, ume baten "esku garbixa" erabiltzen eben. Urtero, gaiñera, irailaren 29xan, San Miguel egunian aldatzen zan alkati eta, berarekin, "prokuradore-sindikua, aguazillaren lana egitten eben epaile ejekutoriak eta alkate-ordea" be aukeratzen ziran. Azken horrek funziño garrantzitsua izaten eban, alkatiaren tokixa askotan hartzen eben-eta, "alkatiak herritik urtetan eban bakotxian".

1601ian horrek elekiñuok arra-

tsaldez egitetik goizian egittera pasau zan; hori bai, ume baten "esku garbixa" jarraitu eben erabiltzen. 1761ian abenduaren 31n hartu zan alkati izendatzeko erabagixa. Eta XIX. mendiaren amaieran hasi ziran aukeratzen ziñegotzixen bittartez. Dana dala, lau urteko eperako alkatiak izateko, XX. mendian ondo sartuta eguan Eibar. Bai frankismuan eta baita demokrazian, lau urtekua-rekin jarraitu da. Eta alkate urte gehixen egindakua **Iñaki Arriola** dogu, 15 urterekin. De los Toyosek zortzi daroiaz. Hori bai, izan dira behin baiño gehixagotan izandakuak be, batez be hasieran.



Aurten beteko dira 85 urte Eibar "Villa" izatetik "Hiri" izatera pasatu zala, hamen hiriburu haundixerri aurria hartuta Bigarren Errepublikia proklamatu zalako. "Hiri Guztiz Eredugarri" titulua Niceto Alcalá Zamorak presiditzen eban Errepublikaren Gobernu Probisionalak emon zetsan 1931ko apirilaren 29xan eta Madrilgo Gazetak (gaur egungo Boletín Oficialaren aurrekarixa) maiatzaren 2xan argitaratu eban. Udaletxeko atarixan etaratako argazki honetan Alejandro Telleria orduko alkatiak titulua jasotzen dau, hainbat politiko eta intelektual bildu zittuan ekitaldixan. Orduko hartan herriko bakoikiak hiru koloreko banderekin jantzi ziran eta, alkati eta korporaziñuarekin batera, Indalezio Prieto Hazienda ministrua, Domingo Llopis Instrukziño Publikokua, Queipo de Llano Lehen Erregioaren Kapitan Generala eta Miguel de Unamuno izan ziran, beste batzuren artian. "Hiri" titulu hori gerra zibillaren ondoren kendu zetsen Eibarri, 1937ko maiatzaren 3an, gero Eusko Jaurlaritzak (1981eko urriaren 6xan) bueltatu bazeskun be. Eibarko Udal Artxiboa

- Francisco Agirre (1748)
- Diego Zezeil (1749)
- Juan Antonio Soroea (1750)
- Agustin Arizmendi (1751)
- Andres Orbea (1752)
- Agustin Bustindui (1753)
- Joaquin Mallea (1754)
- Juan Antonio Soroea (1754)
- Andres Sarasketa (1755)
- Juan Bautista Mendizabal (1756)
- Pedro Olabe (1756)
- Pedro Abanzabalegi (1757)
- Pedro Olabe (1758)
- Juan Antonio Soroea (1759)
- Juan Atxa (1760-61)
- Juan Antonio Soroea (1762)
- Francisco Areta (1763)
- Lucas Suinaga (1764)
- Fco. Ignacio Burgoa (1765)
- Sebastian Zumaran (1766)
- Andres Espilla (1767)
- Domingo Olabe (1768)
- Juan Andres Laskurain (1769)
- Pedro Abanzabalegi (1770)
- Andres Aretio (1771)
- Cristobal Pagoegi (1772)
- Juan Andres Laskurain (1773)
- Juan Antonio Arizmendi (1774)
- Juan Andres Laskurain (1775)
- Sebastian Zumaran (1776)
- Cristobal Pagoegi (1777)
- Andres Sarasketa (1778)
- Marques de Santa Cruz (1779)
- Juan Andres Laskurain (1779)
- Jose Etxeberria (1780)
- Andres Aretio (1781)
- Pedro Abanzabalegi (1782)
- Domingo Olabe (1783)
- Fco. Antonio Bustindui (1784)
- Jose Etxeberria (1785)
- Fco. Antonio Arriaran (1786)
- Sebastian Zumaran (1787)
- Juan Bautista Mendizabal (1788)
- Juan Rezabal (1789)
- Juan Lezeta (1789)
- Ignacio M^a Ibarzabal (1790)
- Pedro Abanzabalegi (1791)
- Juan Antonio Larrañaga (1792)
- Juan Esteban Bustindui (1793)
- Juan Bautista Mendizabal (1794)
- Marques de Santa Cruz (1795)
- Juan Bautista Mendizabal (1795)
- Sebastian Zumaran (1796)
- Juan Antonio Larrañaga (1796)
- Andres Areta (1797)
- Sebastian Erbiti (1798)
- Ignacio M^a Ibarzabal (1799)
- Pedro Fco. Suinaga (1831)
- Francisco Betolaza (1832)
- Jose Joaquin Aretio (1832)
- Andres Mandiola (1833)
- Manuel Jose Martinez (1833)
- Felipe Argiano (1834-35)
- Ramon Agirre (1835)
- Pedro Fco. Suinaga (1835)
- Pedro Pagaegi (1836)
- Jose Domingo Baskaran (1837)
- Ambrosio Sustaeta (1838)
- Ramon Agirre (1939-40)
- Jose M^a Alberdi (1841)
- Eugenio Arostegi (1842)
- Felix Gisasola (1843)
- Pedro Luis Gisasola (1843)
- Juan Bautista Agirre (1844-45)
- Ambrosio Sustaeta (1846)
- Pedro M^a Agirre (1847)
- Antonio Larrañaga (1848-51)
- Candido Aretio (1852-53)
- Manuel Baskaran (1854-55)
- Felix Gisasola (1855-57)
- Manuel Arizaga (1856-58)
- Pedro M^a Agirre (1859-60)
- Pedro M^a Iraolagoitia (1860)
- Candido Aretio (1861-62)
- Juan Manuel Orbea (1863-64)
- Ignacio Ibarzabal (1865-66)
- Trifon Baskaran (1867-68)
- Ciriaco Iturrioz (1868)
- Felix Gisasola (1869-73)
- Inocencio Ortiz de Zarate (1873)
- Juan Manuel Orbea (1873)
- Meliton Martinez (1873)
- Antonio Larrañaga (1874)
- Antonio Garagarza (1874-1876)
- Inocencio Ortiz de Zarate (1876)
- Felix Gisasola (1876-78)
- Enrique Biarreau (1878-79)
- Candido Alberdi (1879-81)
- Mateo Orbea (1881-83)
- Placido Zuloaga (1883-85)
- Jose Cruz Etxeberria (1885-89)
- J. Jose Larrañaga (1890-93)
- Pedro Jose Mendiola (1894-97)
- Antonio Iturrioz (1897-899)

XX. mendea

- Antonio Iturrioz (1900-1901)
- Vicente Iraola (1902-03)
- Miguel M^a Orbea (1904-08)
- Hilarión Suinaga (1909)
- Francisco Muñoz (1909-11)
- Nemesio Astaburuaga (1912-13)
- Santiago Astigarraga (1914-15)
- Nemesio Astaburuaga (1916)
- Jose Ramon Iriondo (1917-19)
- Alejandro Telleria (1920-21)
- Marcelino Baskaran (1921)
- Benjamin Villaberra (1922-23)
- Santiago Astigarraga (1923)
- Remigio Guimon (1923-24)
- Jose Glez. Orbea (1924-25)
- P. Roman Unzetabarrenetxea (1926)
- Ignacio Anitua (1926-1929)
- Timoteo Zubiate (1930)
- Alejandro Telleria (1931-1934)
- Domingo Kortazar (1934-36)
- Alejandro Telleria (1936-37)
- Jose Glez. Orbea (1937-1941)
- Justo Oria (1941-49)
- Esteban Orbea (1949-55)
- Luis Palacios (1955-58)
- Javier Eguren (1958-62)
- Jose Hernando (1962-67)
- Jose M^a Etxeberria (1967-73)
- Antonio M^a Yraolagoitia (1973-77)
- Juan Egia (1977-78)
- Antonio Landa (1978-79)
- Mikel Larrañaga (1979-83)
- Jesus M^a Agirre (1983-87)
- Aurora Baskaran (1987-93)
- Iñaki Arriola (1993-1999)

XXI. mendea

- Iñaki Arriola (2000-2008)
- Miguel de los Toyos (2008-16)

moda



arkitektura

mikel solas -MODA DISEINATZAILEA-

Mod@

Moda eta internet. Internet eta moda. Gaur egun ezin dira bata bestea-rengandik bananduta ulertu, hasieran mesfidantzaz eta urrats txikiak emanez sartu baziren ere moda-etxeak interneten munduan.

Hasierako web orri haietan marka bakoitzak bere kabuz jardun zuen, bertan bere proposamenak aurkeztuz desfile edota propagandarako irudien bidez. Pixkanaka-pixkanaka aurrera joan aha-

la, aurkezpen horiek bideo bitartez hasiko ziren egiten.

Urteak aurrera egin ahala, eta teknologia indar gehiago hartzen ari zela aprobetxatuta, moda markak bere moldura egin eta publizitate mailan tresna indartsuagoak erabili zitezkeela ikusi zuten (paper edo publizitate kartelak oraindik garestiagoak dira) mundu osoko klase guztietako gizon-emakumeei sagu klik batekin euren lana ikusteko aukera eskainiz interneten.

Eta sare sozialen boom-a heldu zen: Facebook, Instagram, Twitter etab. Ez dut gogoratzen noiztik eta nola izan zen, baina nabaritzen dut gero eta garrantzitsuagoa dela moda-markentzat interneten apostu garrantzizua egitea publizitatean; milioika eta milioika euro lagatzen dituzte aurrekontuetan euren burua ezagutzera emateko, gutxienez euren buruz hitz egin dezaten bila. Top



models eta bloggers-ak kontratatzen edo desfileak egiten, "front row" horretan oso ezagun diren pertsona famatuak ikus-eszena horretako markaren osagarri eta erropekin jantzita ikusita "kaleko pertsonak" haien antzerakoak izateko "desioan" euren daramaten modukoa erosi eta eramateko. Laburbilduz, uste dut gaur egun internet ezinbesteko erreminta dela moda-marka bat ezagutzera emateko. Beritasunak eta esperientziak garrantzia du web orrialdean edo blog horretan, inork ez daki-eta nor egon daitekeen une horretan publikatu duzuna ikusten.

<https://www.facebook.com/solasdesigns>

olatz etxeberrria -ARKITEKTOA-



Aurreko astean Eraikinen Ikuskapen Teknikoari buruzko hitzaldia izan zen Portalean Arkitektoen Elkargokoen eskutik. Bertan izandakoek jakinmina erakutsi zuten eta amaitzerakoan galdera ugari egin zituzten. Harritura gelditu nintzen entzuleek izan zuten arreta mailarekin, baita eskatzen zuten azalpen gehiagoren nahiagatik ere. Horrek


Eraikinen Ikuskapen Teknikoa

argi erakutsi zidan gai honi buruz idatzi behar nuela eibartar biztanleriaren jakin nahia asetzeko.

Hitzaldiaren harira eta laborpen gisa esan dezakegu EITa edo ITEa, gaztele-raz esanda, 50 urte baino gehiago duten eraikinentzat derrigorrezkoa dela eta baita berreraikitzeke diru laguntzak eskatu behar dituzte beste eraikin guztientzat ere.

Aditua naizen aldetik bizilagun guztiak animatzen ditut diru laguntzak eskatzera eraikinak konpondu edota hobetzeko. Horretarako egokiena teknikan aditu batengana jotzea izango litzateke. Eta zer behar du eraikin batek diru laguntza horiek eskuratzeko? Bada, EITa eginda izatea. Gaur egun Eibarren egiten diren fatxada konponketa

gehienek diru laguntza horiekin egindakoak dira eta horretarako eraikinaren isolamenduaren indartzea eta irisgarritasun baldintzen hobetzea lortu behar da. Baina beste abantaila batzuk dakartzkie ere bizilagunei: konfort termikoaren hobetzea eta kalefakzioan diru gutxiago xahutzea.



Urbateko igerilariek lehiaketaz lehiaketa dihardute

Toulouseko "Meeting National Midi-Pyrénées"-era joan ziren Nekane Tejedor eta Lucia Irigoien Gipuzkokao selekzioarekin eta baita maila bikainean jardun: Tejedorrek ez zuen zortea bere alde izan podiumera igotzeko orduan eta laugarrena izan zen ez proba batean edo bitan, hiruretan baizik (bular erako 50, 100 eta 200 metrotan) eta Irigoien hirugarrena izan

zen bizkar erako 50 metroko proban (100ekoan 18. postuan sailkatu zen). Espainiako junior eta infantil mailetako txapelketan izan zen, bestalde, Maite Barruetabeña. Lau probetan hartu zuen parte: estilo erako 200 eta 400 metrokoetan, libre erako 100 metrokoan eta bizkarreko 200ekoan.

Txikiengana helduta, Azpeitian jokaturako eskolarren 50 metroko finaletan izan ziren aurrez sailkatutako 10 benjamin (Malen Beobide, Irati Dorrio, Lucia Gabilondo, Lucas Salazar eta Alaitz Sanz bular eran; Natasha Bengoa, Izaro Bernedo eta Julen Zuazo bizkarrean; eta Eider Alberdi eta Leire Martin librean) eta bost alebinak (Inge Erkiaga, Paula Gabilondo, June Gomez, Laura Lahidalga eta Kai Zubiaurre, guztiek ere bular erako proban).



Lucia Irigoien eta Nekane Tejedor, Urbateko ordezkariak Toulousen.

Victor Cordon Debabarreneko onena Ereñon eta Altsasun



Eguraldi kaskarra izan zen aurreko asteburuko protagonista nagusia Eibar Energia Hiria - Debabarrena taldeko txirindulariek parte hartutako probetan eta, horren eraginez, txirindulari gutxi izan ziren helmugetara iritsitakoak. Ermuko txirindularia izan zen bietan Klub Deportiboko taldearen ordezkari onena: Ereñon 19. postuan helmugaratu zen, Aldro taldeko Antonio Soto irabazle-arengandik bi minutura; eta Asteasun, Seguros Bilbaoko Jaume Suradek irabazitako proban, bigarren tropelean iritsi zen, Alkiza igotzen erorikoa izan eta gero.



Ipuruako gimnastak biharko Euskadiko oinarrizko txapelketan

Espainiako txapelketarako baliagarria izango den proban hartuko dute parte bihar Ipurua gimnasia erritmikako zazpi ordezkari, maila indibidualean. Alaitz Aranbarri, Lur Aranburu, Nahia Arguiz, Indira del Pino, Elena Sudupe, Malen Txurruka eta Elene Varela izango dira biharkoan. Aurretik, baina, motorrak berotzen jardun izan dute eta, horrela, aurreko zapatuan Gasteizko Oskitxo Torneoan hartu zuten parte: infantiletan Aranburuk zilarrezko domina irabazi zuen eta Del Pino laugarrena izan

zen; kadeteetan Arguiz 6.a izan zen, Varela 8.a, Txurruka 11.a eta Aranbarri 13.a; Sudupek laugarren postua eskuratu zuen jubeniletan; eta, azkenik, maila bikaina erakutsiz, Irati Yartzak urrezkoa bereganatu zuen senior plus mailan. Bestalde, lehen aipatutako maila indibidualeko Espainiako txapelketarekin batera jokatu den Erreginaren Kopan izango da Ipurua, Enara Bilbao, Ainhoa Bizkarra, June Herredero, Izaro Ibarra eta Maddi Teranek osatutako infantil mailako taldearekin.

Pilota partiduak gaur Astelenan

Afizionatu mailako neurrak bi jokatu dira gaur Katedralean (19:15ean). Bigarren tokian jokatu den partidu nagusian Errendimendi Gipuzkoako Txapelketaren infantiletako 1. mailako finalerdia izango da jokoan eta hor Azkargortak eta Azkoitiak osatutako Klub Deportiboko bikoteak Azpeitiko Eloseg-Alberdi bikoteari egingo dio aurre. Aurretik lagunartekoa jokatu da, Deporrek pilota eskolako benjaminen artekoa: Oruezabal eta Amuategi alde batetik, eta Segurola eta Arrieta bestetik, izango dira nor baino nor. Acuña-Ibarra benjamin mailako bikoteak, bestalde, Arrasateko Uarkape frontoian egingo dio aurre bihar, 16:00etan hasita, bertako bikoteari.

Kiroldegiko osasun zerbitzua eskualdera zabaldu da

Txema Peñalba medikuak eta Isabel Rebolledo Erizaintzan diplomatuak kudeatzen dute gabon aurretik Eibarko Kirol Patronatuak eskualde guztira zabaldutako zerbitzu berria. Peñalbak 1984tik dihardu kirol medikuntzan eta Eibar FT-ko sendagilea izan zen 21 urtetan, gero zentru pribatuetan jarraitzeko orain dela hilebete batzuk Patronatoak fitxatu arte. Rebolledok, bestalde, mendelaurdena bete du Ipurua kiroldegian aurretik beste lau urtetan Eibarko sorostetxean beharra egin eta gero.

Une honetan zentroan osasun-azterketak egiten zaizkie federatutako klubeetako kirolariei -250 bat inguru- eta baita kirola egiten hasten diren kiroldegiko erabiltzaileei, ahaztu barik orain dela 20 urtetik hona Hirugarren Adinekoei egiten zaizkienak. Azken kolektibo horretan 65etik 90 urtera artekoak sartzen dira eta mantentzen diren gimnasian, igerilekuko aktibitateetan etb. diharduten 170 erabiltzaile inguru ditugu antolatutako ikastaroak jarraitzen. Errekonoizimenduekin batera, esfortzu-proba ere egi-



Isabel Rebolledok eta Txema Peñalbak osatutako lan-taldearekin beste urrats bat eman du Eibarko Kirol Patronatoak.

ten diete, orientabide dietetiko eta entrenamendu-pautak eskaintzeaz gain. Zerbitzuak, Patronatuak dituen 11.000 baz-

kideak artatzeaz gain, sedentismoarekin amaitu eta osasunaren aldeko ahalegin berezia egiten jarraituko du.

Deporreko atletak goi mailan

Aurreko asteburuan jaurtiketa luzeko Euskadiko txapelak izan ziren jokoan Durangon eta Klub Deportiboko atletak lan paregabea egin zuten. Horrela, Odei Jainagak geldiezina dela erakutsi zuen berriro eta junior eta senior txapelak irabazi zituen disko jaurtiketean, jubeniletan eibartarrek podium osoa bete zuten (Andoni Egurrola, Markel Gutierrez eta Eneko Gisasolarekin) eta kadeteetan Carlitou Mendy-k zilarra lortu zuen. Nesketan ez ziren gutxiago izan eta Jone de Castro eta Elene Susaetak lehen bi postuak lortu zituzten jubeniletan eta Ainhoa Aspiazua laugarrena izan zen helduetan.



Bestalde, Tomas Vouilloz laugarrena izan zen Salamancan jokaturako promesa mailako Espainiako txapelketan. Asteburu honetan ere aipatutako jaurtitzaileak Castellon izango dira Espainiako txapelketan eta Mendyk Oviedon hartuko du parte pertika eta jauzi hirukoitzean.



Julen Garrok irabazi egin zuen bere partida. Artxiboa

Garaipena eta berdinketa xakean


Gorengo mailako Klub Deportiboko A taldeak 3'5-0'5 irabazi zion Anaitasuna-Kakuteri aurreko zapatuan eta, liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, hirugarrena dago sailkapenean Zarautz A bigarrenekin berdinduta. Euren arteko lehia izango dute, gainera, bihar arratsaldean, postu horretaz zein jabetu bila. Puntu

premia handiagoa duen Deportiboko B taldeak, bestalde, berdinketa besterik ez zuen lortu aurreko asteburuan aurkari zuzena duen Elgoibarrekin. Hori dela-eta, eibartarrak azken aurreko postuan daude, aurretik dituenengatik puntu bakarrera. Bihar arratsaldean Gros F izango dute aurkari Dostian.

JAVIER GAZTELURRUTIA MAIZTEGI

1. URTEURRENA (2015-III-12)

*Zu joan zara, baina,
zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko
izan dituzun ilusioa eta bizipoza.*
ETXEKOEK




XXV. Eibarko Duatloia Aitziber Urkiolarentzat

Saltoki Trikideak taldeko atleta eibartarrak, proba irabazteaz gain, jokoan zegoen Gipuzkoako Duatloi Sprint txapela jantzi zuen aurreko zapatu arratsaldean euria geratu barik jokaturako lasterketan. Antxitxiketan egin beharreko zazpi kilometro eta erdi eta bizikleta ganean egindako 19 kilometroko ibilbidea osatzeko ordubete, 3 minutu eta 43 segundo behar izan zituen Aitziber Urkiolak, Tolosaldeko taldeko Maialen Lopez bigarrenari 44 segundo aterata.

Gizonezkoetan Mugarra Triatloi Taldeko

Oier Ariznabarreta izan zen garaile, 52 minutu eta 8 segundoko denborarekin, atzetik sartu zen Ondarretako Xabier Tijerori 36 segundo kenduta. Eibar Triatloi Taldeko bi lagun, Pello eta Txomin Osoro anaiak, hamar lehenen artean amaitu zuten: parte hartzen duen ia proba guztietan podiumean edo podiumetik gertu amaitzen duen Pello laugarrena izan zen eta Txomin anai gaztea hamargarrena. Gizonezkoetan hirugarren sailkatuak, Hos-sain Kaanache oriotarrak jantzi zuen Gipuzkoako Duatloi Sprint txapela.



Somos Eibar - Elgoibar bihar 19:00etan

Barakaldon (nahiko justu izan bazen ere) irabazi eta gero, Eibar Eskubaloi-ko lehen taldeak Elgoibar hartuko du bihar Ipuruan, sailkapeneko bigarren postuaren bila diharduen borroka horretan. Atzetik joan arren, elgoibartarrak ez dira aurkari errazak izango (Elgoibarren, esaterako, nagusitu egin ziren). Avia Eibar emakumezkoen seniorrak ere garaile izan ziren Munttarperen aurrean Euskal Ligan (24-17) eta Haritzak, Egian 25-29 irabazita, bikain jarraitzen du, sailkapenean sendo, igoerako play-offa jokatzeko aukera guztien jabe.

Katu Kale - Grupo Eme bihar 18:00etan

Bi hilabete daramatza herriko saskibaloi taldeak partidurik irabazi gabe eta, maila berrian denboraldi hasiera bikaina izan bazen ere, gero eta kaskarrago jardunda sailkapeneko azkeneko postuetara gerturitzen doa Iñaki Sanchezen taldea. Aurkari zuzenarekin lehiatu zen Katu Kale azken jardunaldian eta hor ere ezin izan zuen bere martxa irauli, Astigarraga Mundarorekin 55-53 galduta. Aurretik ere izan ziren eibartarrak 52-53, atsedendian 31-28 galtzen joan eta gero. Bihar Ipuruia kiroldegian Grupo Eme jasoko dute eibartarrek, garaipenaren bila.



101 eibartar Lilatoian

4.000 emakumek egin zioten aurre domeka goizean Lilatoiarenean XXVII. edizioak izandako eguraldi kaskarrari. Euria eta haizea nagusi izan zuen proban 101 eibartar izan ziren parte hartzen eta guztiek osatu zituzten ibilbideak zituen bost kilometroak. Kiro-la egiteaz gain, ondo gozatu zuten berriro.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatalogia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio Unitatea
9) Psikiatria	
10) Neurologia	



**JOSE MIGUEL
LASKURAIN**
(orquestra eta banda
zuzendaria)

“Zuzendari ikastaroan teknika klasikoak eta modernoak ikusiko ditugu”

Bergarako Musika Eskolan txistu irakaslea izateaz gain, eskola bereko orkestrako zuzendaria ere bada eibartarra eta, berak gidatuta, eskola horretan zuzendari ikastaroa emango dute. Lau zapatutan izango da ikastaroa, 09:00etan hasita, eta egun bakoitzeko iraupena ordu bikoa izango da. Klaseak elebidun izango dira eta interesa dutenek apirilaren 4ra arte izango dute izena emateko aukera, Bergarako Espolotan dagoen musika eskolara joanda, 943765780 telefonora deituta edo idazkaritza@bme.e.telefonica.net helbidera idatzita. Matrikulak 55 euro balio du.

- *Norentzat pentsatutako ikastaroa izango da?*

Musika taldeak zuzentzen dituztenentzat eskaintza da. Helburua ikastaroan jasoko dituzten zuzendaritzarako teknika klasikoak eta modernoak geroago euren taldeekin praktikan jartzea litzateke. Hortik kanpora ere ikastetxeetako irakasleentzat edo, beste barik, interesa duten instrumentistentzat ere aproposa izan daiteke. Arlo teorikoa eta praktikoa landuko ditugu: batuta nola hartzen den ikasi, dauden batuta motak az-

tertu, konpasa jarraitzeko teknikak ikusi... Askotariko teoria erakusten ahaleginduko naiz eta, ondoren, jasotako teoria guzti hori, partitura ezagunekin praktikatzeko tarteak izango dugu.

- *Nola eta noiz ekin zenion zuzendari ibilbideari?*

Orain dela 20 bat urte hasi nintzen txistulari eta musika bandak zuzentzen, baina orkestra-zuzendaritzaren arloa Kordoban, Navarro Lara maisuarekin ikasten hasi nintzenean ezagutu nuen benetan. Horrekin ba-

tera Londresko Royal School of Music-en Orkestra Sinfoniko eta Gitarra Orkestrako goi mailako ikasketak ere egin ditut eta laster jasoko dut eskola bereko Banda Zuzendaritza titulua.

- *Orkestra bat baino gehiago zuzentzen duzu...*

Bergarako Musika Eskolako orkestraz gain, eratu berri diren Debarreneko Orkestra Sinfonikoaren eta Orfeoiko zuzendari titularra ere banaiz eta apirilean Azkotiko Banda zuzentzeko gonbidapena jaso dut.



Eibarko andren ingurukoak

Arantza Lasa historialariak gure herriko andrazkoen historiari errepaso ederra eman zion martitzenean, Emakumearen Egunaren harira ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako hitzaldian. Solasaldira gerturatu zirenek adi-adi, interes handiarekin jarraitu zituzten azalpen guztiak, XV. mende-ko kontuekin hasi eta gaur egunekoekin amaituta.

Hamar urte kalean kantatzen

Kaleetan Kantuz abesbatzak gure herriko kaleak kantuan alaitzen hasi zenetik hamar urte beteko dira eta, hori ospatzeko, martxoaren 19rako belaunaldien arteko topaketa antolatu dute. 12:00etan hasiko den ekitaldi berezian, Kaleetan Kantuz abesbatzarekin batera Barakaldoko Gitarraren Lagunak taldekoek, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako abesbatzak, akordeoi eta gitarra taldeek hartuko dute parte.



"Itsaspeko bihotzak" literatur aretoa



Martxoaren 20ra arte "Itsaspeko bihotzak" areto literarioa hartuko du Juan San Martin liburutegiak. Jarduera udaleko Berdintasun Sailak eta liburutegiak elkarlanean antolatuta dute, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, eta 8-16 urte bitarteko haur eta gazteentzat bereziki pentsatuta dago. Haur literaturaz baliatuz, genero berdintasuna jorratuko da Galtzagorri Elkarteak diseinatutako areto literario honetan, horretarako disziplina artistiko desberdinak erabiliz (arte ederrak, diseinua, ikus-entzunezkoak, antzerkia...). Areto hau berritzailea da erabat. Izan ere, ez baitago Haur Literatura baliatuz genero berdintasuna lantzen duen honelako beste diziplinarteko jolasik. 8-11 eta 12-16 urte bitarteko haurrentzat prestatua dago. Herri edo hiri bakoitzean gutxienez 10 saio gidatu eskaintzen dira, 25 haurrez osatutako taldeentzako. Saioak goizez izaten dira eta arratsaldez familientzako nahiz hezitzaileentzako saioak ere eskaintzen dira.

"Nola jarri mugak HHko umeei" hitzaldia

Datorren martitzenean, hilaren 15ean, 18:30ean, Nerea Mendizabal psikopedagogo ezagunak Haur Hezkuntzako umeei mugak jartzeari buruz egingo du berba ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuarean).



Antolatzaileen berbetan, "nola jokatu, zein estrategia erabili... guraso berriak izan ala ez, zaila izaten da askotan seme-alabak hezitzea, urduri ez jartzea, esandakoa betetzea, esan eta egiten duguna bat etortzea...". Horrelako lanetan laguntzeko aholku eta azalpenak emango ditu gai horietan ibilbide luzea duen profesionalak. Sarrera doan izango da.

Piropo lehiaketako irabazleak

Iñaki Serranoren "Zu ikustean, hego haizea sartzen zait, eta iparra galtzen dut" saritu du epai-mahaiak Eibarko eskalategi biek eta udalak antolatutako piropo lehiaketan. Web orrian boto gehien (boto guztien %35) jaso duen "Irribarre egin, zure ezpainekin egin dezakezun bigarren gauzarik hoberena izan daiteke eta" Jonatan Alustizak proposatutako piropoak jaso du beste saria. Guztira 45 piropo aurkeztu dira lehiaketara.



Ahozko jardunbideak lantzen

"Esatearen ederra", testu idatzietan oinarritzen diren ahozko jardunbideak lantzeko ikastaroa emango du Julia Marinek, UEU-k antolatuta. Horrelakoak saihesten ikasteko kurtsua 18 ordukoa izango da, eguen arratsaldetan Markeskua jauregian, apirilaren 7an hasita eta izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiagorako ueu.eus helbidean begiratu dezakezue.



Txistularien kontzertua domekan

Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du domekan, 12:30ean udaletxeko arkupeetan. Elena Perezek zuzenduta, honako egitarauari jarraituko diote: "Lesaka" (orripeko, Santiago Irigoien), "Murru" (arin-arin, J.I. Ansorena), "Soka-dantza" (Isidro Ansorena), "Hasierak" (Isidro Ansorena), "Agustin, Xantin ta Juan Jose" (Isidro Ansorena), "Kaskarre" (mazurka, J.I. Ansorena) eta "Ezpata Dantza Amaia" (Jesus Guridi).

Muñoaren lan berria

Ibon Muñoa eibartarraren bertso bilduma berriarekin laster liburua emango du argitaratu Ateramiñe argitaletxeak. Muñoaren hirugarren lana izango da, aurretik "Ametsen munduan bizi naiz" eta "Ainarak herrira itzuliko dira" izenburukoak kaleratu ditu eta.

"E.G.B.-ra buelta" jaiak

Martxoaren 19rako "E.G.B.-ra buelta" jaialdia prestatu dute Punto y Aparte diskotekan, Jai Productions-ek lagunduta, 23:00etatik 04:00etara. Juanma Cano DJ-ak girotuko duen jairako sarrerak 10 euro balio du eta alde zuzen erosi daiteke, Eibarren Birjiñape, Trinkete, Portalea, Xania, Caserio eta Tas-Tas tabernetan; Elgoibarren, Lanbroan; eta Ermuan Caperosen.





BORJA RODRIGUEZ

40 urtetako krisia

Oraindik ere hilabete batzuk falta dira nire 40. urtebetetzerako. Badakizue, adin honetan krisia omen dagoela diote helmuga horretaraino iritsi direnetako askok. Egia omen da. Izan ere, dagoeneko krisian sartuta nago bete beterik. Kirola egiterako orduan, gorputzak ez du lehen bezala erantzuten. Kolesterolari begira ibiltzen naiz analisisetan, eta garbi garbi jaten saiatzen naiz ahal dudan bakoitzean.

Aita izateak ere zerikusia du. Nere pentsamenduak ez daude jada jarrita nere etorkizunean, eurenean baizik. Nere arropa ez zait asko inporta, baina eurak guapo guapo joan behar dira beti. "Nere adina daukazunean egingo duzu hau" eta horrelako esaldiak esaten ditut noizbehinka baino noizbehinkago...

Dena dela, aste honetan kamiseta baten idatzitako esaldi batek poztu eta piztu egin nau berriro ere. "Benetako bizitza, 40 urtetik gora hasten da. Lehengokoa, praktikak besterik ez dira izan". Ba bai, egia da. Ez dakit praktikak gainditu ditudan ala ez, baina orain has daiteke benetako bizitza. Prestatu dadila mundua, krisia alde batera utzi eta banoa irrifar haundi batekin datorrenaren bila!

39. ANTZERKI JARDUNALDIAK

"Barbecho" (NATXO MONTERO)

Martxoaren 11n, barixakuan, 20:30ean, Coliseoan (65 minutu)



Antzezlea: Laia Cabrera, Natxo Montero

Zuzendaria: Natxo Montero

Jardunaldietan aurkezten duten arte eszenikoen espektro zabalaren erregistro bat gehiago da Monterorena. Dantza garaikidearen esparruan euskal dantzari eta koreografo esanguratsuenetakoak proposatutakoa jota eta balsaren artean dago; hala ere, ikusleak "dantza arraroarekin" egingo du topo, batez ere erreferentziarik ezeean ezingo duelako beste ezerekin alderatu. Hala ere, lan bikaina da mugimendu eta koreografiaren bitartez planteatzen zaigun hausnarketak ekartzen diguna.

"El niño erizo" (LA MACHINA TEATRO)

Martxoaren 12an, zapatuan, 17:00etan, Coliseoan (60 minutu)

Antzezleak: Patricia Cercas, Fernando Madrazo

Zuzendariak: Rita Cofiño eta Francisco Valcarce

Alemania herri folkloretik Grim anaiak bildutako ipuin ezezagunetako aurkezten digute, erdi ume, erdi kirikino den Juan pertsonaiak bizitzen dituen esperientzien bitartez, berdintasunak eta desberdintasunak dauzkaten balore guztiak. Gai horiek ironiatik, komikotasunetik eta umeena propio den "gaiztakeria inozotik" lantzen dira, balore baikorrak barneratzeko asmoarekin. Besteen begiradetan guztiok korapilatuta gelditzen garela erakustean, arraroa izatearen sentimendua baztertzen da.



"Objetos perdidos" (NARRUZKO ZEZEN)

Martxoaren 13an, domekan, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan (70 min.)



Antzezleak: Marawan Dubois, Marina Villalante, ...

Zuzendaria: Manolo Murillo

Narruzko Zezen eszenatokira itzultzen da hainbat urte lozorroan egon ondoren, Energia Berriztagarrietako Gradu ikasleek bultzatuta. Estreinatutako testu honetan bizi garen kontsumo gizartearen hausnarketa egiten da azkartasuna eta ironia baliatuz. Komedia barregarrian elkar maite eta elkar jo etengabeak ematen dira, elementu absurdoz hornitutako bideari jarrituta, suspenseaz baliatuz eta ezusteko amaierarekin. Ustea eta errealtatea aurrez-aurre jarriko dira beste behin.

"Etxekoak" (HUTS TEATROA / ARTEDRAMA)

Martxoaren 16an, eguaztenean, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)

Antzezleak: Kristian Etxaluz, Javier Barandiaran, ...

Zuzendaria: Ander Lipus

Inmigrazioari buruzko istorio hau ez da etorkinen ikuspuntutik kontatzen, baizik eta kanpotarra hartuko duen familiarenetik eta biziko den tokiko hiritarrenetatik, hau da, gu guztion ikuspuntutik; horregatik izango da etxea istorioaren protagonista. Ander Lipus



Euskarazko lana



zuzendariaren bizipen pertsonal batetik jaiotako antzezlanean egungo estatu eta gizarteak sortzen joan diren lege eta muga zentzugabeak jarriko dira kolokan. Etxekoak/kanpokoak dikotomiaz baliatuko dira inmigrazioaren arazoa lantzeko.



Motxaila Eguna asteburuan Mendaron

Garai bateko "sasikopotzu" ohitura zaharrari lotutako Motxaila Eguna ospatuko dute Mendaron bihar, neguko azken zapatuan, "Zerua motxailen aterpe" goiburuari jarraituta. Jai giroa berotze aldera, gaur 22:30ean bertso saioa egingo dute Sanagustinen, Andoni Egaña, Alaia Martin, Oihana Bartra eta Agin Rezola bertsolariekin. Inigo Zubiaurre izango da gai-jartzailea (sarrerak 5 euro balio du). Motxaila Egunaren egitaraua, berriz, bihar 11:00etan abiatuko da Haitzbeltz kobazuloan.



Sagardo Eguna zapatuan Ermuan

Bihar 11:00etatik aurrera Sagardo Eguna ospatuko dute Ermuan, Orbe kardenalaren plazan, hango gazte asanbladak antolatuta. Goizetik hasita eta arratsaldera bitartean, egun osorako egitaraua prestatu dute.



Udaberriko kontzertua Soraluzen

Soraluzeko Musika Eskolak datorren eguaztenean, martxoak 16, Udaberriko Kontzertua eskeiniko du Antzokian, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Francisco Gandiaga Unamuno.** 82 urte. 2016-III-2.
- **Angelinos Rodrigo Anton.** 75 urte. 2016-III-2.
- **Carmen Muniozgueren Narbaiza.** 94 urte. 2016-III-3.
- **Sabino Etxeberria Lizarralde.** 52 urte. 2016-III-3.
- **Jeus Osa Osa.** 77 urte. 2016-III-5.
- **Salustiano Otero Alonso.** 70 urte. 2016-III-7.
- **Isabel Cabrera Visiedo.** 83 urte. 2016-III-7.
- **Mª Jose Errasti Aretxabaleta.** 62 urte. 2016-III-7.
- **Faustina Larreategi Elustondo.** 99 urte. 2016-III-8.

jaiotakoak

- **Aaron Valdes Gabarri.** 2016-II-24.
- **Jon Zalduegi Fernandez.** 2016-II-29.
- **Noa Gomez Lamas.** 2016-III-1.
- **Mohamed Bachiri Ziani.** 2016-III-2.
- **Emma Luengo Nieves.** 2016-III-3.
- **Fatou Cisse.** 2016-III-4.
- **Rym Zagari.** 2016-III-5.
- **Malen Gisasola Fernandez.** 2016-III-8.

farmaziak

- Barixakua 11**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 12**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Domeka 13**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Astelehena 14**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 15**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 16**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Egunea 17**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 18**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

		3	9	6			7	
1		7		5				
			1	2		3		
		1						2
	3	9				1	8	
5						6		
		6		9	1			
				3		9		8
	9			7	6	5		

1	8	3	7	6	9	4	2	5
7	9	5	3	2	4	1	6	8
2	6	4	5	1	8	7	3	9
8	1	9	6	4	3	5	7	2
3	2	6	1	7	5	8	9	4
5	4	7	8	9	2	3	1	6
4	5	1	2	3	6	9	8	7
6	7	8	9	5	1	2	4	3
9	3	2	4	8	7	6	5	1

AURREKOAREN
 EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 11

GAZTELEKUA

16:30. Disparatea. Indianokuan.

BILERA

19:00. Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Arrate Kultur Elkartearen.

ZINE-FORUMA

19:00. "Million Dollar Baby". Defibel-ek eta Pagatzak antolatuta. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Barbecho" (Natxo Montero). Coliseoan.

Zapatua 12

ABIAN

09:00/13:00. Ezker abertzalearen hausnarketa prozesuaren bigarren bilera irekia. Kultur.

TALDE-IBILDIA

10:00. Sosolara eta bertan herri kirolak (Emakumeen Nazioarteko Eguna). Untzagatik abiatuta.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00-14:00 & 16:30-20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

ANTZERKI JARDUNALDIK

17:00. "El niño erizo" (La Machina Teatro). Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Disparatea. Indianokuan.

ESKULAN TAILERRA

17:00. "Amets-harrapagailua". El Corte Inglesean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren kalejira. Untzagatik abiatuta.

Domeka 13

BIHARRIAN

10:00. Biharrian plazaren inaugurazioa.
11:00/12:00. Ipuin kontalaria 2-6 urte bitartekoentzat.
12:00. "Vermut eta rock&roll", Elvis Caino DJ-rekin. "Sopa de sapo" haurrendako liburu-denda.
17:30. Ipuin kontalaria 3-6 urte bitarteko umeentzat. Biharrian-en (Ubitxa 16-18).
18:30. Ipuin kontalaria 7-9 urte bitartekoentzat.

KONTZERTUA

12:30. Usartza txistulari banda. Untzagan (udaletxeko arkupeetan).

GAZTELEKUA

17:00. Play/Wii. Indianokuan.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Objetos perdidos" (Naruzko Zezen). Hezkuntza Esparruan.

Astelehena 14

CARE-REN BILKETA

11:00-13:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

Martitzena 15

IKASTEN

10:00. "Munduaren zientzia ikuspegia" hitzaldia, Juan Luis Ibarluzea Eibarko ingeniariaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

CARE-REN BILKETA

17:00-20:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Taldearekin (Argatxa, 5ac).

HITZALDIA

18:30. "Nola ipini mugak Haur Hezkuntzako umeei", Nerea Mendizabal psikopedagogoaren eskutik. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

Eguaztena 16

IKASTEN

11:00. "Pentsio duinak" kafe tertulia. Untzagako jubilatutuei etxean.

CARE-REN BILKETA

17:00-20:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Taldearekin (Argatxa, 5ac).

GURE ESKU DAGO

19:00. Bilera. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

19:30. "Azken tratamenduak barizeentzat", Javier Sanchez zirujano baskularrarekin. Policlínica Gipuzkoa-k antolatuta. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Etxekoak" (Huts Teatroa). Coliseoan.

Eguena 17

IKASTEN

10:00. "Matematika eta matematikoak" hitzaldia, Jose Fran Gutierrez Lazpitarekin. Armeria Eskolan.

LIBURU AURKEZPENA

19:00. "Eibar F.T.-ren 75. urteurrena", Jesus Gutierrez-ena. Coliseoan. Gonbidapenarekin.

BILERA IREKIA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenarena. Portalean (3. solairuan).

JARDUNALDIA

19:00/22:00. "Transformers" enpresariaren bigarren belaunaldiak ekitaldia. Ekingunek antolatutako ekitaldia. Kulturalean.

URTEKO BATZARRA

19:30. ...eta kitto! Euskara Elkarteoko ohikoa. Urkizu 11-ko lokaletan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Martxoaren 13ra arte: "Nondik nora?" eta "Emakume iraultzaileak" (*Topalekuan*)

Martxoaren 20ra arte: "Itsaspeko bihotzak" (*Juan San Martin liburutegian*) "06/16". Gorka Larrañaga (*Portalean*)

Martxoaren 23ra arte: "Zatarra arte izan arte!". Ana Orozko (*Armagintzaren Museoa*) "Vivencias". Mateo Guilabert (*Untzagako Jubilatutuei Etxean*)

Martxoaren 31ra arte: Juan Ignacio Aizpurua (*EI Ambigú kafetegian*) Anna Selga (*Portalea tabernan*) Kepa Gonzalez (*Klub Deportiboan*) Iñaki Campos (*Ez Dok tabernan*)

Apirilaren 2ra arte: "Paisaia naturalak". Juan Antonio Palacios (*EI Corte Inglés-ean*)

Apirilaren 3ra arte: "Erraketistak: gure aitzindariak gogoan" (*Portalean*)



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **MARKEL**
Uskola Badiola, martitzenian hiru urte bete zenuzaten-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **JOKIN**, potxolo, bixar 12 urte beteko dozuzelako. Asko maitte zaittugu. Aitta, ama eta Garaziren partez.



Ongi etorri, **JARE**, hillaren 4tik gure artian zagoz-eta. June eta Zigor gurasueri zorionak, amama Rosa eta osaba Ioneren partez.



Zorionak, **AMAIA!!**, eguaztenian bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ixoneren partez.



Zorionak, **MADDI**, etxeko printzesak hillaren 8xan 12 urte bete zittuan-eta. Segi holan, erritmikako txapelduna izaten!



Zorionak, **JONE**, astelehenian 9 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aittaren eta amaren partez.



Zorionak, **GARAZI**
Egurrola Mugerza, gaur lau urte egitten dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KAI**, bixar urtetxua egingo dozue-eta! Muxu haundi bat, txapeldun, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **MAIDER**, gaur zazpi urte egingo dozuz-eta. Ondo pasau eta patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **LOREA**, gure printzesak atzo 9 urte egin zittuan-eta! Txokolatezko muxuak famelixaren partez.



Zorionak, **MIKEL**, astelehenian 12 urte beteko dozuz-eta. Muxuak famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IBANE**, atzo urtetxua bete zenuzaten-eta. Muxutxu haundi bat osaba Ibon eta izeko Yoliren partez.



Zorionak, **AITANA**, atzo bost urte egin zenuzaten-eta. Famelixaren eta, batez be, Nahia eta Jontxuren partez.



Zorionak, **JOSEBA**, martxuaren 19xan 30 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ENZO**, bixar bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **HARRIET**, gaur bi urte betetzen dozuzelako. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, **UXUE**, gure etxeko txorixak hillaren 8xan sei urte bete zittuan-eta. Danon eta, batez be, AMAIUR-en partez.



Zorionak, **LUR** Arriola, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EIDER!!**
Oso ondo pasa zeure egunian. Patxito pillua danon partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
12an: 19:45, 22:30
13an: 20:00
14an: 20:30

"La ley del mercado"

Zuzendaria: Stephane Brize



(2 ARETOAN)
12an: 19:45, 22:30
13an: 17:00, 20:00
14an: 20:30

"Brooklyn"

Zuzendaria: John Crowley



(ANTZOKIAN)
12an: 19:45, 22:30
13an: 20:00
14an: 20:30

"La Serie Divergente Leal"

Zuzendaria: Robert Schwentke



(2 ARETOAN)
12an: 17:00
(ANTZOKIAN)
13an: 17:00

"Padres por desigual"

Zuzendaria: Sean Anders



1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Amañan pisua salgai. 2 logela, egongela eta ganbara. Jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 671-439939.
- Pisua salgai Ipuruako bolera ondoan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despensata. Merke. Tel. 675-248806.

1.2. Errentan

- Pisu txikia behar da Eibarren. Ahal denik eta arinen. Tel. 634-458275.
- Pisu txikia hartuko genuke errentan Eibarren edo inguruan. Tel. 602-674359.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 630-407207.
- Epe motzean, Elgoibarko Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabilgiza. Tel. 943-254252 eta 645-599810.
- Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkiko Polonia Etxebarrian. Gazteendako egokia. Tel. 688-803449.
- Garaje itxi handia alokagai, Urkizuko dorrene azpian. Tel. 649-977852. Mari Carmen.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-466742.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 612-278600.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egin, nagusiak zaindu eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-329868.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-024132.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458061.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 635-143762.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-683273.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta gida-baimenarekin. Tel. 695-701753.
- Gizonezkoa eskaintzen da arratsaldez edozein lan egiteko. Tel. 693-232959.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-906729.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Gida-baimenarekin. Tel. 689-571882.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erizain-laguntzaile titulua-rekin. Tel. 688-826968.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzaile. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Neska eskaintzen da pegorak, tabernak etb. garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-790555.
- Neska eskaintzen da pegorak, tabernak eta abarrak garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 626-914904.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-248959.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-245889.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. Tel. 663-358003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-441517.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia kamare-ro moduan eta lantegian. Tel. 625-997599.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 602-022174.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta pegorak garbitzeko. Tel. 662-099453.
- 53 urteko emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 634-110341.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-767696 eta 658-273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 697-372374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 663-524539.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 696-509360.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Tel. 634-748531.
- Neska eskaintzen da asteburuetan eta astegun arratsaldetan bi orduz nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-758270.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, jantzeko lagundu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-981157 eta 602-090439.
- Neska eskaintzen da etxeko garbitu eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 633-808931.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-911709.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-404402.
- Emakumea eskaintzen da etxeko beharrak edo garbiketarako egin, nagusiak zaintzeko, etb. Tel. 666-380843.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egiteko, etb. Tel. 666-074924.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 680-973549.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-893250.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 744-403068.
- Gizarte-langilea eskaintzen da umeak edo

- nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 686-592841.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 655-143467.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-458271.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (Lanbideren titulua) eta beste lanetarako. Tel. 640-209948.
- Emakume euskalduna eskaintzen da orduka etxeetan lan egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.

4.2. Langile bila

- Pertsona behar da goizez ordu-bete lan egiteko. Tel. 636-550740.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Egongelako alfonbra handia salgai. Egoera onean. Merke. Tel. 606-882043.
- Solarium bertikala salgai, plataforma biratorioarekin. Tel. 619-679523.
- Juan Serrano margolariaren hainbat kuadro salgai. Tel. 656-710155 eta 943-207703.
- Fuchs & Mohr hormako piano alemaniarra salgai. Intxaurren kolorean lakatuta. Taburerearen opari. Deitu 19:00etatik aurrera. Tel. 656-758793.
- Neskaren jaunartzeko soinekoa salgai. Berria. 14 urtekoaren neurrikoa. Tel. 638-605006.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Autorako GPS edo tantuan-a aurkitu dut eta Udaltzaingoan laga dut.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Itzuli dira Cinking Eskaintzak. Ez duzu pentsatuko ihes egiten lagatzea, ezta?

5 urteko bermea km. mugarik gabe | 5 urteko laguntza errepidean | 5 urteko mantenimendua

OFERTAK
cinking
PIENSA EN 5

i20
9.450€ -tik aurrera



i30
11.740€ -tik aurrera



i10
7.490€ -tik aurrera



OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO

ELGOIBAR Olaso Polig., 17 943 74 14 80

i10 Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 98-142. Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,3-6,2. **i20 Gama:** CO₂ Emisioak (gr/km): 92-144. Kontsumo mistoa (l/100 km): 3,5-6,2. **i30 Gama:** CO₂ Emisioak (gr/km): 99-169. Kontsumo mistoa (l/100 km): 3,8-7,3.

PVP i10 1.0 MPI (66CV) BLUEED ECO CLASS (7.490€), PVP i20 1.2 MPI (85CV) ESSENCE (9.450€), PVP i30 1.4 MPI (100CV) BLUEED ESSENCE (11.740€). Penintsulan eta Balearetan gomendatutako PVP-a. BEZ, gerraioa, Matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eraketa eta Gobernuaren PIVE Plana (Gobernuaren Plan horretako baldintzen beteazterari lotuta) barm. Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetan eta 6.000€ko (10.000€ko (100ren kasuan) eta 10.000€ko (130ren kasuan) gutxieneko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatzeko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziakzioa. 2016/02/29ra arte balokoko du eskaintza honek. Erakutsitako modelok: i10 Style, i20 Style eta i30 Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioi lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.



...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com



Hitzaldia

BARIZEENTZAKO AZKENEKO TRATAMENDUAK: Tratamendu berriak mikroaparrarekin, irrati-maiztasunarekin eta ablazio kimikoarekin.

MARTXOAK 16 PORTALEA UDAL KULTUR ETXEA
EIBAR, 19:30. Sarrera doan.

Javier Sanchez, Policlinica Gipuzkoako zirujau baskularra:

“Barizeei aurre egiteko apenas agresiboak diren eta oso molestia gutxi eragiten dituzten tresna ugari ditugu”

Javier Sanchez zirujau baskularrak barizeak tratatu eta kentzeko azken aurrerapenak gerturatu dizkigu, eta edozein arteria edo zain-arazori aurrea hartzerako orduan eguneroko zainketak duen garrantzia azpimarratu du.

Datorren eguaztenean, martxoak 16, Javier Sanchez Policlinica Gipuzkoako zirujau baskularrak hitzaldia eskainiko du Eibarko Portalea Kultur-Etxean, 19:30etik aurrera; bertan, barizeentzako azken tratamenduen inguruan jardungo du, hala nola, mikroaparra, irrati-maiztasuna edo ablazio kimikoa.

“Paziente gehienak zain gutxiagitasunarekin lotutako arazoekin datoz kontsultara. Arazo hori modu askotan eman daiteke: barikula txiki edo telangektasiak eragindakoetatik hasita -batez ere estetikoak direnak-, arazo larriagoetaraino, adibidez orbaindu ezin diren ultzerak”, azaldu du Javier Sanchezek.

Aldi berean, espezialistak dioenez, eragin txikiagoko patologiak dituztenak “gutxiago etortzen dira, arteria-arazoak dituztenak esaterako: aldizkako etsipena edo eskaparete-gaitza dutenak; gaixotasun hori dutenek gelditu egin behar izaten dute distantzia jakin bat egin ondoren, eta eskapareteak begiratzen doazela ematen du, baina horrelakoak forma larriagoetan ere aurkez daitezke”.

“Guztiak `odol-zirkulazioaren arazoek` barruan koka badaitezke ere -azaldu du Sanchezek-, tratamendua, prebentzioa, eguneroko zainketak eta gaixotu daitezkeen pertsona motak guztiz desberdinak izan daitezke. Adibidez, galtzerdi elastikoak ezinhobeak dira zain-arazoentzat, baina arteria-arazoak daudenean ez dira erabili behar”.

TRATAMENDU FORMA BERRIAK

“Kirurgia baskularra asko aldatu da azken urteotan, tratamendu era berri bat sortu arte: endobaskularra. Ez da hain agresiboa, azal gainetik egiten da, eta sendatze azkarragoa izaten du. Irrati-maiztasuna modukoa zain-arazoetan erabili daiteke eta, baita arteria-arazoetan ere, stents-ak jarri”, dio zirujau baskularrak, honakoa gehituz: “Tratamenduan aurrerapen horiek eman badira ere, aditu baten ba-



Javier Sanchez medikua, zirujau baskularra.

lorazioa ezinbestekoa da paziente bakoitzari tratamendurik egokiena jarri ahal izateko”.

Javier Sanchezen hitzetan, “barizeentzako tratamenduak dira gehien eskatzen dizkigutenak. Esklerosia aparrarekin barikula eta barize txikienezako. Zain safenei eragiten dien barize konplexuagoetarako irrati-maiztasuna da egokia, ez da hain tratamendu agresiboa, ez dago ospitalean ingresatu beharrik eta errekupeazioa azkarragoa da. Eta 2015az geroztik `Venaseal` itsasgarri biologikoa dago eskuragarri: barizeei aurre egiteko tratamendu leunagoa da eta ez du ia ebakuntza-ondorengo molestiarik eragiten”.

“Emaitzak bikainak dira edozein teknika erabilia ere: bai kirurgia klasikoa -ez da baztertu behar-, eta baita berrienak ere; teknika horiekin gure pazienteei hobetzen laguntzen diegu; hala ere, kasu askotan, guztiz sendatzea zaila izaten da, arazo kronikoak direlako. Eguneroko zainketa pertsonala oso garrantzitsua da”, amaitu du zirujau baskularrak.